


artekka



**BIZITZAREN
GARESTITZEA I**

GEDAR

—Kontsumoaren garestitze
orokortuaren logikaren
pean baieztatzen den
kontsumitzailearen figurak ukatu eta ezkutatu
egiten du gizarte kapitalista antolatzen duen
funtsezko harremana: burgesiak lana ustiatzen
duela langile klasearen esplotazioa gauzatuz.
Horregatik, inflazio-egoera batean ezin ebatz
genezake burgesiak ezer galtzen duenik,
are gutxiago proletalgoak bere gaitasunak
mugatuta ikusten baditu, hori baita burgesiaren
eta Kapitalaren garaipenik handiena.

Edukia

6

10

24

48

EDITORIALA

Arteka

**Garesti ordaintzen da
inflazioa**

KOLABORAZIOA

Mikel Bartolome

**Inflazioa ekonomia
globaletik: fenomeno
sistemiko baten kausak
eta ondorioak**

IKUSPUNTUA

Isabel Benitez

**«Klase-feminismoa»
kontzeptuaren
genealogia eta mugak**

KOLABORAZIOA

Karla Pisano

Berrojalbiz

**Jabeak eta proletarioak:
etxebizitzaren jabetza
kohesio- eta bazterketa-
mekanismo gisa**

Garesti ordaintzen da inflazioa

Editoriala

Funtsezko beharrizanen edo horiek ahal izateko kontsumo-gaien prezioaren gorakadari lotutako bizitzaren garestitzea izango dugu hizpide ale honetan eta hurrengoan. Bi zentzutan azpimarratu nahi dugu auzi honen garrantzia. Alde batetik, bizitzaren garestitzea, kontsumo-gaitasunaren txikitzea ez ezik, botere galera bat da proletalgoarentzat: bere merkantziaren –lan-indarra– debaluazioaren bitartez ematen den negozioazio-gaitasun politikoen galera, burgesiaren gaitasun politikoen eta ekonomikoen hazkuntzaren aurrean. Beste aldetik, bizitzaren garestitzeak baztertu egiten du auzia termino absolutuetan –hau da, erlazio kuantitatibo gisa, eta ez kualitatiboa– formulatzen duen hipotesi erreformista, anakroniko gisa agertzen baita formulazioaren une berean. Hel diezaiegun auzi biei.

Hasteko, bizitzaren garestitzeaz ari garenean, bizi-baliabideen garestitzeaz ari gara –kasu honetan inflazio-egoera orokor baten testuinguruan gertatzen dena–, baina ez horretaz bakarrik: bizi-baliabideen garestitze orokorraren emaitzarik garrantzitsuena ez da kontsumoaren garestitze orokortua, klase sozial guztietan eragina izango lukeena, kontsumoaren garestitzearen bitartez ematen den pro-

**Bizi-baliabideen
garestitze orokorraren
emaitzarik
garrantzitsuena ez
da kontsumoaren
garestitze orokortua,
klase sozial guztietan
eragina izango
lukeena, kontsumoaren
garestitzearen
bitartez ematen den
proletalgoaren botere
galera baizik**

letalgoaren botere galera baizik. Botere galera hori etsai duen burgesiaren harremanean ulertzen da –soldata erlatiboaren jaitziera–, baina baita gaitasun sozialen galera absolutuan ere, proletalگوaren bizitzan –eta bizitza proletarioan– pitzadura soziala eragiten baitu elkar harremanerako oinarritzko bitartekoak bereganatu ezinak. Hau da, pobrezia soziala sortzen du proletalگوan, eta ez burgesian.

Botere galeraren bigarren adierazpenaren alde soziala bistakoa da edozeinentzat, bereziki, sufritzen duenarentzat. Pobrezia materiala ez baita gauzak ez edukitze soilak; gaitasunen pobretzea ere bada, gauzek kondentsatzen dituzten gaitasun sozialerako sarbidea ukatzen baitu pobrezia materialak. Horren ondorio politikoa, ordea, ez da horren agerikoa; pobretzeak ez duelako modu zuzen batean aukera politikoa zapuzten, aukera politikoa egon dadin beharrezkoak diren baldintzak suntsitu baizik. Aberastasun sozialak ez du zertan mugimendu politiko aberatsa sortu, baina pobretzeak sortuko du, ziurtasun osoz, politikaren pobretze orokor bat.

Pobretze absolutu hori, ordea, ezin da botere galera erlatiboaren dinamika gabe ulertu, hau da, gizarte kapitalistaren oinarritzko harremana –lana eta Kapitalaren artekoa– ekuaziotik kanpo utziz. Sozialdemokraziak lehenengoari bakarrik begiratzeko dio (pobretze absolutuari), eta modu horretan, pobretze absolutuaren dinamika bera ulertzeko ezgai da. Halakorik egiten badu, arrazoi politikoa honakoa da: sozialdemokraziak ez du kapitalismoa gainditu nahi, bere ondorio sozialak lausotu baizik; hots, sozialdemokraziak kapitalismoa biziraunarazi nahi du, berau eroraraziko duen antolakuntza kolektiboaren funts ekonomikoa desitxuratu, bere kontraesanak estaliz.

Modu absolutuan neurtzen den pobretzeak ez du gizarte kapitalista azaldu beharrik bere burua justifikatzeko: ebidentzia bat da pobretzea gertatzen dela kontsumo-gaitasunak txikitzen direnean, eta hori ikusteko begiak baino ez dira behar. Pobrezia absolutu horri, Estatuak gauzatu beharreko aberastasunaren birbanaketarekin erantzun nahi dio sozialdemokraziak. Baina termino absolutuetan ere, ez dago aberastasuna ulertzerik: banatu nahi duten aberastasun hori banatuz gero, aberastasuna bera desagertuko litzateke, sozialdemokraziak eta gizarte kapitalista osoak aberastasunaz duten adieraren arabera. Aberastasuna, diru pilaketa moduan agertzen dena, errealtatean kapital-jabetza da, eta halakorik banatuz gero, aberastasuna bera suntsitu egiten da, gizarte kapitalistaren ekoizle den, eta horregatik ere, potentzia sortzaile den aberastasun gisa.

**Aberastasun sozialak ez
du zertan mugimendu
politiko aberatsa sortu,
baina pobretzeak
sortuko du, ziurtasun
osoz, politikaren
pobretze orokor bat**

Sozialdemokraziak esplotazio kapitalista ontzat ematen du, berau termino absolutuetan adierazten ez den bitartean. Hau da, sozialdemokraziak ez du inolako interesik esplotazioaren amaieran; bilatzen duena esplotazio hori jasangarri egitea da

Hor agerian geratzen da politika sozialdemokrataren muga, zentzu negatiboan: aberastasuna birbanatu daitekeelako aberastasunaren mugak suntsitzen ez diren bitartean, hots, kapital-harremana iraunarazten den bitartean. Politika horren nolakotasun positiboa ere argi geratzen da: sozialdemokraziak esplotazio kapitalista ontzat ematen du, berau termino absolutuetan adierazten ez den bitartean. Hau da, sozialdemokraziak ez du inolako interesik esplotazioaren amaieran; bilatzen duena esplotazio hori jasangarri egitea da. Horregatik esplotazio deitzen dio orduko bost euroko soldataren ordaintzen den lanari, eta ez hamabost euroan ordaintzen denari, kontzepzio marxistaren arabera bigarrengoan, termino absolutuetan ezkututzen bada ere, lehenengoan baino esplotazio handiagoa eman daitekeenean.

Pobretzea termino absolutuetan neurtzea, bada, ez da nahikoa ulertzeko inflazioak klase borrokaren auzian duen eragin politikoa, termino horietan ez baita aztertzen lana eta Kapitalaren arteko harreman kualitatiboa, ezta inflazioaren ondorio den soldataren txikitze erlatiboa ere –metatutako kapital osoarekin erlazioan, prezioaren gorakadarekin modu absolutuan hazten baita Kapitala, soldata mantendu edo proportzio txikiagoan hazten den bitartean.

Aipatutako ikuspegia sozialdemokraziarentzat funtzionala da estrategia komunista ukatzeko, baina ez da nahikoa. Sozialdemokraziak justifikazio historikoa galduko luke funtzio positibo bat beteko ez balu. Funtzio positibo hori honetan datza: ez du proletalgoaren klase independentzia oinarri duen estrategia komunista ezerezarekin ordeztzen, langile klasearen eta burgesiaren frakzio desberdinen arteko aliantza jartzen du bere lekuan, prezioen igoera ez-proportzionatuan oinarritzen dena –inflazioaren gaiari dagokionez, baina beste gaitetan ere justifikatzen da halakorik, fronte nazionalaren banderaren pean-. Ikuspegi horren arabera, oligopolioek eta monopolioek –energiarena, esate baterako– nahieran igotzen dituzte prezioak eta, horrek, gizartearen gehiengo baten ustiaketa dakar, burgesiaren frakzio desberdinena barne.

Bada, kontsumoaren garestitze orokortuaren logikaren pean baieztatzen den kontsumitzailearen figurak ukatu eta ezkutatu egiten du gizarte kapitalista antolatzen duen funtsezko harremana: burgesiak lana ustiatzen duela langile klasearen esplotazioa gauzatuz. Horregatik, inflazio-egoera batean ezin ebatz genezake burgesiak ezer galtzen duenik, are gutxiago proletalgoak bere gaitasunak mugatuta ikusten baditu, hori baita burgesiaren eta Kapitalaren garaipenik handiena.

Inflazioarekin, burgesiak ez du ezer galtzen ez klase gisa, ezta kapital indibidualaren ordezkari gisa ere; gehienez jota, burges indibidual batek langile klasearen esplotaziotik sortzen den pastelaren zati txikiago bat eraman dezake, edo desagertuko da kapitalista gisa ezer eramaten ez badu, baina ez du ezer galduko burges gisa, bere burges izaera ez bada. Horri aurre egin nahi dio, baina, sozialdemokraziak; jakin badakielako, eta hala desio duelako, ekoizpen kapitalistak burgesia behar duela, proletalgoak, proletalgo izaten jarraitzeko, hau da, soldatepeko langile izaten jarraitzeko, burgesia behar duen bezala. Ekoizpenaren bi figura sozialen bizi-raupena eta esplotazio-oreka da sozialdemokraziaren programa politiko positiboa, bere justifikazio historikoa.


Esan dugu sozialdemokraziaren planteamenduak anakronikoak direla formulatzen diren unetik bertatik. Izan ere, soldata duina bezalakoak –esplotazio duina esan nahi dute–, soldata kantitate baten arabera formulatzen direnak ezinbestean –soldata minimoa kasu–, sistema kapitalistaren argazki estanko bat aurkezten dute, bere dinamika objektiboak une oro bilakatzen duelarik, inflazioarekin kasu, soldata kantitate bat erlatiboki aldagarri, eta erlatiboki beheranzko.

Baina berdin dio horrek, horretan baitatza kontzepzio absolutuaren muga eta zentzu politikoa: ezgai da esplotazioaren auzia ebazteko, hain zuzen ere, auzia ebatz ez dadin sortua izan delako –edo «jaio delako»–. Beraz, ezgai da esplotazioa gainditzeko, esplotazioa iraunarazteko sortu delako. Esplotazioaren amaiera, beharraz gain, desio kontua ere badelako. ●

Inflazioa ekonomia globaletik: fenomeno sistemiko baten kausak eta ondorioak

10

Testua — **Mikel Bartolome**
Irudia — **Zoe Martikorena**



Azken mendeetan inflazioak ekonomialarien artean eztabaida piztu duen arren, oraindik ez dago inflazioaren kausei buruzko eztabaidari bukaera emango dion ondorioirik. Philipsek 1958an bere kurba ospetsuaren deskribapena egin zuenean (egiatik zerbait badu ere, zabalki gezurtatua izan da), ekonomiek enpleguaren edo prezioen egonkortasuna sustatzearen artean (biak bateraezinak baitziren) aukeratu behar zutela proposatu zuen, eta horrekin eztabaidak garrantzi handiagoa hartu zuen. Hala ere, inflazioa, 1999an sortu zenetik, ez da arazo mediatikoa izan eurogunean. Azken bi urteetan munduko ekonomiarentzat erabakigarriak izan diren hainbat gertaera izan dira: pandemia, hornidura-kateko arazoak, Errusia eta Ukrainaren arteko gerra, eta, duela hilabete batzue-tatik hona, inflazioa. Errentaren banaketaren eragi-nari eta inflazioaren inplikazioei buruzko hainbat analisi on egin direnez^[1], fenomeno horren kausa deskribatzen saiatuko naiz, eta horretarako, deskri-bapena egitura ekonomikoarekin lotuko dut.

Zer da inflazioa? galderari erantzuna emateak ez luke zertan zaila izan. Edonork erantzun deza-ke, intuitiboki (eta zuzen), inflazioa prezio-maila-ren igoera orokortuan datzan fenomeno ekonomi-koa dela. Horrek diruaren balioa txikitzea dauka ondorioztat, prezio-maila orokorrak gora egiten duen neurri berean diruak erosahalmena galduko baitu. Ordea, fenomeno bat identifikatzeak ez dakar berarekin haren kausak ezagutzea, ez eta zein me-kanismoen bidez jarduten duen ezagutzea ere. *Zerk eragiten du inflazioa?* galderak ez du erantzun erra-zik, eta eztabaida ekonomikoan askotariko azalpe-nak jaso ditu^[2].

Gertakari inflazionistak, egungoa barne, elkarri lotutako hainbat fenomenoren ondorio izan ohi di-ren arren, badira inflazioaren kausak deskribatzen ahalegintzen diren bi azalpen mota zabal.

Alde batetik, prezioen igoera orokortu bat gerta daiteke, agente ekonomikoak, beren erosahalmena handitu izanari esker, produktu berarengatik lehen baino diru kantitate handiagoa ordaintzeko prest badaude. Bestela esanda, prezioen gorakadari es-kari agregatuaren hazkundeak eragiten dio, errenta maila zein zirkulazioan dagoen diru kantitatearen handitu izanak.

Beste alde batetik, produktu jakinen eskaintza ez denean nahikoa haren eskariari erantzuteko, produktu horien prezioak gora egingen du. Produk-tu gutxi batzuk ez, asko badira ekoizpenean arazoak dituztenak eta haien eskaintzan jaitsiera nabarme-na badago, prezioen maila era orokortuan igo da.

Ekonomia bakoitzaren kausa partikularren atzean dauden kausak ulertzea eta prezioen bilakaera me-taketa kapitalistaren dinamikara lotzea da gakoa. Azken finean, prezioen igoera prezio-egonkortasu-na zeukaten ekonomia garatu gehienetan gertatu da, neurri handiago edo txikiagoan bada ere.

KAPITALAREN HEDAPEN GLOBALAREN EGITURA EKONOMIKOA

Duela hainbat hamarkadatik hona, eta berezi-ki 90eko hamarkadatik aurrera, ekoizpen-prozesu nagusiek izaera globala hartu dute. Garraio-kos-tuen beherakadari eta komunikazio-teknologi-en gorakadari esker, enpresa batek berak bere jardue-ra munduko leku askotan eraman dezake aurre-ra. Gaur egun, industria-enpresa nagusiak beren ekoizpena etapatan banatu eta planeta osoan anto-latzeko gai dira. Adibidez, iPhone telefono mugikor baten ekoizpenean mundu osoko bost kontinente-tako ekoizpenean 200 enpresak baino gehiagok hartzen dute parte.

Fenomeno honi, kapitalaren mundu mailako zabaltzeari, alegia, ekoizpenaren zatiketa gehitu behar zaio. Kontua ez da bakarrik kapitalak mun-duan hedatzeko duen joera; horretaz gain, erren-tagarritasunaren maximizazioa lortzeko helburuz, ekoizpena etapatan zatitzen du. iPhonearen adibi-dera itzuliz, haren ekoizpena hainbat prozesuren arteko konbinazioaren ondorio da. Labur-labur esanda, diseinua Kalifornian egiten dela esan ge-nezake, mikrotxipen ekoizpenerako behar den kobaltoa Kongon ateratzen da, kamera Taiwanen ekoizten dute, audio-ekipoa Austinen, kondentsa-dore elektronikoak Japonian, eta azkenik, Txinan muntatzen da.

iPhonearena adibide arrunt bat besterik ez bada ere, industria- eta finantza-adar anitzetan ematen den mundu mailako deslokalizazio eta zatiketa era-kusteko balio digu; errentagarritasuna handitzea ahalbidetzen duen heinean, ekoizpena etapa des-berdinetan zatitzen eta deslokalizatzen da, prezio hobeetan, eta horrenbestez, irabazi altuagoekin.

Ekoizpena mundu mailan zabaldu izanak eta mundu osoan zehar sakabanatutako ekoizpen-etapa desberdinak integratu izanak bi fenomeno ekarri ditu: ekonomia desberdinen arteko lotura handiagoa, eta horren ondorioz, herrialde bateko edo sektore ekonomiko zehatz bateko gertakari batek ondorio zuzenak izatea ekonomia globalean. Bestetik, sare horretan parte hartzen duten eragile guztien artean koordinaziorako premia handiagoa sortzen da. Koordinazio horrek ez du soilik logis-tikoa izan behar (hornidurari, garraioari eta na-

zioarteko merkataritzari lotutakoa^[3]), ekonomikoa ere izan behar du, hau da, oreka handia behar da sektore baten eskaintzaren eta gainerako sektoreen eskariaren artean, desproporzionaltasun-arazoak saihestu nahi badira.


MERKATUA, MEKANISMO ERREGULATZAILEA


Ikusi dugunez, ekonomia kapitalistaren garapenak ekoizpen-prozesuen artikulazio eta koordinazio gero eta handiagoa eskatzen du. Hala ere, horrek berak, aldi berean, zaugarritasun handiagoa eragiten du ekonomia globalaren ordenan.

Ekonomia kapitalistaren erregulatzaileak, merkatuak, antolaketa espontaneo bat sortzen du, kapital indibidual bakoitzak bere irabazia maximatzeko helburuz hartutako erabakien emaitza. Merkatuak ez dionez jarraitzen gizakiek egindako diseinu kontziente eta planifikatu bati, etengabe dago asalduren eta desordenaren menpe^[4]. Horren arrazoia zera da, haren izaera ez-deliberatua lehian oinarritzen dela, eta errentagarritasuna handitzea duela helburu bakar^[5]. Horregatik, shock baten aurrean, endogenoa (2008ko finantza-ekitaldia, adibidez) zein exogenoa (birusaren agerpena eta horren ondoriozko pandemia, kasu), jarduera ekonomikoa berrantolatzeko gaitasuna era guztietako desproporzionaltasun eta desoreken mende dago^[6].

**Ekonomia
desberdinen arteko
lotura handiagoa,
eta horren ondorioz,
herrialde bateko edo
sektore ekonomiko
zehatz bateko
gertakari batek
ondorio zuzenak
izatea ekonomia
globalean**









**Munduko energia-
ekoizpena ekonomia
oro har jaitsi
izanarekin batera
jaitsi zen; hala
ere, industria-
jarduera eta salgaien
garraioa berrartzeak
energia-hornidura
handia behar du**



Zentzu horretan, pandemiak aurrekaririk gabeko eskaintza-shock bat ekarri zuen: gelditu egin zen munduko ekoizpenaren zati handi bat. Eskasiak ez zuen osasun-produktuetan soilik eragina izan (horien eskaria nabarmen handitu zen pandemia zela eta), baizik eta eskarian aldaketa handirik jaso ez zuten produktuetan ere bai.

Munduko energia-ekoizpena ekonomia oro har jaitsi izanarekin batera jaitsi zen; hala ere, industria-jarduera eta salgaien garraioa berrartzeak energia-hornidura handia behar du. Petrolio-ekoizpenak oraindik ez ditu 2019ko balioak berreskuratu eta energia berriztagarrien iturriak behar energetikoak asetzetik urruti daude. Hala, lantegietan zein garraioan ekoizpen-mailaren eta energia eskariaren arteko desorekak egoteak energiaren prezioa igotzea dakar.

Energiaz gain, 2011tik prezio baxuen ziklo batek zetozen lehengaien prezioak ere nabarmen egin du gora. Gariaren, artoaren edo olioaren moduko nekazaritza-produktuen prezioak nabarmen igo dira, eta aldi berean, erabilera industrialeko metalak, litioak, nikelak edo aluminioak, kasu, % 35etik gorako igoerak izan dituzte bi hilabetetan. Ezin dugu ahaztu lehengaiak mugimendu finantzario sendoetara lotutako produktuak direla, eta mugimenduok produktuon hegakortasuna handitzeaz gain, prezioetan aldaketa sakonagoak eragiten dituela. Egoera honetan, ez da harritzekoa Bloomberg Commodity Index-ak, lehengai-prezioaren burtsako kotizazioen erreferentzia-indizeak, gora egin izana 2020ko udatik aurrera, eta horrekin errekor historikoak hautsi izana. Hala, energia-enpresa handiak zein lehengaiarekin jarduten duen kapital finantzarioa dira inflazioaren onuradun nagusiak.

Halere, prezioen igoera orokortu egin da mundu mailako ekonomian: pasa den maiatzean euroguneko urteko inflazioa % 8,1ra iritsi zen. Estatu Batuetan % 8,8ra heldu zen apirilean; Txilen, Latinoamerikako ekonomia egonkorrenetako bat izaki, % 9,4ra ailegatu zen; eta 20 ekonomia handien taldean urtetik urterako batezbesteko inflazioa % 7,9koa izan zen. Gaur egungo inflazioa, beraz, mundu mailan gertatzen den fenomenoa da, ekonomia bakoitzaren ezaugarrien arabera intentsitatea badu ere.

Aipatu bezala, energiaren prezioa bereziki garrantzitsua da egungo inflazioa azaltzeko, baita Espainiako merkatuaren kasuan ere. Espainiako ekonomiako kontsumoaren prezio desberdinen arteko aldakuntzari erreparatuz, argi ikus dezakegu: Kontsumoko Prezioen Indizeko (prezio-mailaren adierazle nagusia) erorsketa-saskia osatzen duten


ondasun gehieneko prezioa ia ez zen igo 2021eko maiatzaren eta 2022ko maiatzaren artean, eta Espainiako Estatistika Institutu Nazionalak elektrizitate, gas eta bestelako erregaiei prezio agregatuan urte batetik bestera % 36,5ko igoera erregistratu zuen. Bistan denez, igoera horrek eragin zuzena izan du bestelako ondasun eta zerbitzuetan, norbere erabilerarako autoak (urtetik urterako prezioa % 19,1 igo zen 2021eko maiatzetik) edo elikagai freskoak (% 11,2 igo ziren), kasu. Labur esanda, aurtengo maiatzeko kontsumoko prezioak % 8,7 igo ziren aurreko urteko maiatzaren aldean; zifra altua da, bereziki 2008ko krisiaren hasieratik 2021aren erdialdera arte eurogunean prezio-maila ia ez dela aldatu kontuan hartuta (% 0 eta % 3ko balioen artean ibili da).

Edonola ere, Espainiako ekonomiak % 6,5eko inflazioarekin itxi zuen 2021a; soldatek, bitartean, gutxi gorabehera % 1,5 egin zuten gora, hitzarmenen bidez. Ikusi dugun moduan, inflazioa ez da inongo erabaki kontzientetatik jaiotzen, eta langileen bizibaldintzak erasotzeko helburutik ere ez; izan ere, ez ditu sektore gutxi kolpatuko kostuen igoera nabarmenak. Aldiz, behin inflazioa sorturik, hura kapital-harremanean berrantolaketa bat aurrera eramateko aitzakia teknikotzat hartzen da. Iaz, soldata gehieneko erosahalmena % 5 inguru jaitsi zen, eta aurreikuspenek joera horri horrek jarraituko duela diote: intentsitatea apaltzen badoa ere, inflazioarekin eta soldatei beren horretan eusteko neurriekin jarraituko dugu, seguraski, 2023ko hasierara arte. Azken batean, inflazioak errentaren birbanaketa bat eragiten du, eta hor irabazleak eta galtzaileak daude. Baina, nahiz eta, beren soldata erreala murrizten ikusiko duten aldetik, kaltetu nagusiak langileen gehiengoa izan, ezin da esan kapitalak, oro har, inflaziotik etekinak ateratzen dituenik. Horrela, prezioen igoera irabazi-marjinak mantentzeko kapitalaren berezko lehia-tentsioaren emaitza gisa uler dezakegu.

INFLAZIOARI EMANDAKO ERANTZUNA ETA PROPOSAMEN POLITIKOAK

Europako Banku Zentrala, prezioen egonkortasunari eustea helburu nagusitzat duena, eta Estatuko beste erakunde batzuk prezioen igoerari aurre egiteko hainbat jardunbide aztertzen ari dira. Hainbat urtez Europako ekonomia interes-tasa oso baxuen, kreditu-igoeraren eta zor publiko eta pribatuaren erosketaren bidez suspertzea bilatzen zuten politiken ondotik, EBZk bere politika eraldatu du, ekonomia «gehiagi ez bizkortzeko», inflazioa txikitu dadin.





Egia esanda, EBZ dilema baten aurrean da. Alde batetik, gastuaren igoera sustatzen eta zorpetzea errazten duen politika monetario hedakorrarekin jarraitu ahal luke, baina horrek inflazioaren arazoa areagotuko luke eta denboran luzatuko. Bestalde, bere politika alda dezake, interes-tasak igotzera (duela 11 urtetik ez dira aldatu), zorpetzeari mugak jartzera eta gastu fiskalaren gaineko diziiplina ezartzera begira



Egia esanda, EBZ dilema baten aurrean da. Alde batetik, gastuaren igoera sustatzen eta zorpetzea errazten duen politika monetario hedakorrarekin jarraitu ahal luke, baina horrek inflazioaren arazoa areagotuko luke eta denboran luzatuko. Bestalde, bere politika alda dezake, interes-tasak igotzera (duela 11 urtetik ez dira aldatu), zorpetzeari mugak jartzera eta gastu fiskalaren gaineko diziiplina ezartzera begira. Kontua da diru-politika murriztaile batek nekez eragin dezakeela jatorria eskaintzaren shockean duen inflazioa geldiaraztea (tasen igoerak nola handitu dezake energia-ekoizpena edo nola konpon ditzake hornidura-kate globaleko arazoak, jarduera ekonomiko osoa moteldu gabe?).

Hala, tasen igoerak (kreditua garestitzea dakar) eta estatuek egiten dituzten zor-erosketak gutxitzeak inflazioaren eragina gutxituko luke, euroguneko kreditua eta kontsumoa murriztuko lukeelako; 2008ko krisiaren hasieratik gune ekonomiko horrek nabarmen txikitu ditu bere hazkunde-tasak

eta hurrengo urteetara begira egindako aurreikuspenek orain arteko joerari eutsiko diotela adierazi dute^[7]. Gainera, arrozoi berberengatik, inflazioari ahalik eta azkarren aurre egitea proposatuko lukeen politika murriztaileek arrisku larria ekarriko liekete *enpresa zonbiei*, hots, soilik kreditu merkeari eta finantzaketarako erraztasun handiei esker bizirauten duten eta azken urteotan presentzia handitu duten konpainia ez-errentagarriei.

Oraingoz, EBZK baieztatu du ez duela estatuen zor gehiagorik erosiko^[8] eta tasen igoerarekin hasiko dela^[9] datorren uztaitetik aurrera. Finantza-merkatuak igoera horiei aurreratzen ari dira, eta euroguneko estatuen zor publikoaren etekinak (interesak) balio maximoetan daude 2015a ezker. Inflazioaren aurkako balizko politikiei dagokienez, estatuen finantzaketarako gaitasuna oso mugatua izango da. Berebiziko garrantzia hartzen du horrek, soldata-eremuan ez ezik, bestelako esparruetan ere langileen bizi-baldintzei eraso egiten zaiela adie-

**Soldata-eremuan
ez ezik, bestelako
esparruetan ere
langileen bizi-
baldintzei eraso
eginen zaiela
adierazten baitu;
estatu-erakundeek
gaitasun txikiagoa
izanen dute gizarte
osoa beren baitan
integratzeko
osasunean, gizarte-
babesean eta
bestelako prestazio
ekonomikoetan
egindako
gastuaren bidez**

razten baitu; estatu-erakundeek gaitasun txikiagoa izanen dute gizarte osoa beren baitan integratzeko osasunean, gizarte-babesean eta bestelako prestazio ekonomikoetan egindako gastuaren bidez. Hala-ber, tasen etorkizuneko igoera nabarmentzen hasia da kredituen prezioaren igoeran, hala nola hipoteketan, eta horrek etxebizitzaren moduko funtsezko ondasun bat eskuratzeko gaitasuna murrizten du.

EBZren maniobrez gain, gobernuak ere urrats batzuk eman ditu horren bueltan. Litro bakoitzeko emandako 20 zentimoko hobariaren moduko neurrien arazoa zera da, ez daudela inflazioaren kausak konpontzera bideraturik, baizik eta bere sintomak arintzera. Prezioz igo diren ondasun jakin batzuk erosteko subsidio puntualak diren heinean, inflazioaren aurkako gobernuaren neurriak errentak Estatutik sektore oso zehatzetara transferitzera mugatzen dira, izan alokairuko etxebizitzaren jabeetara edo erregaien banatzaileetara. Baldintza horietan, inflaziorako epe luzerako irtenbide bakarra, halaber, ekonomia kapitalistaren arrazionaltasunetik, hots, errentagarritasunaren eta lehia-
ren eskakizunetatik, askatzetik igarotzen da. Ordea, indar-metaketa-
ren nazioarteko prozesu baten baitan baino ezin da hori ulertu, zeinak antolaketa ekonomiko kapitalistaren erakundeekin amaitzea ahalbidetuko duen. Horrekin guztiarekin, baieztatu dezakegu ekonomia orekatu eta demokratikoki planifikatua izateko bide bakarra, ekoizpenaren erabakiak kapitalaren metaketa despotikoak bideratuko ez dituen, gizartearen beharrak asetzea beste irizpiderik ez duten harreman ekonomikoak sortzeko oinarriak ezartzea dela. ●

ERREFERENTZIAK

1 Youtuben eskuragarri dagoen bideo honetako elkarrizketa Mario del Rosalekin: GEDAR LANGILE KAZETA. *BURDIN HESIA* / Soldataren gainbehera #BH07.

2 Inflazioari buruzko ikuspegi desberdinen errepaso entretenigarria hemen: Sampedro, J. L., & Berzosa, C. (2012). *La inflación (al alcance de los ministros)*. Debate.

3 Mundu mailako koordinazio logistiko faltaren adibide paradigmaticoa da hornidura-kate globalen krisia, erdieroaleen gisako intsumoen eskasia eragin zuena. Honen inplikazioetan sakontzeko: Pinna, A. M., & Lodi, L. (2021). Trade and global value chains at the time of COVID-19. *The International Spectator*, 56(1), 92-110.

4 Hala ere, badirudi ekonomia konbentzionalak, sintesi neokeynesian oinarrituak, errealitatea ukatzen duela esaten duenean ekonomiak, berez, oreka orokorrerako (prezio, ekoizpen-maila eta errenta egonkorak eta ez-borondatezko langabeziarik gabeko egoera ekonomikorako) joera duela.

5 Merkatuak erregulatzaile ekonomiko gisa duen eginkizunari buruzko deskribapen zabalagoa hemen: Nieto, M. (2017). *Información, mercado y cálculo económico. Una crítica a la escuela austriaca*. En Cockshott, P. y Nieto, M (2017). *Ciber-comunismo: planificación económica, computadoras y democracia*. Trotta.

6 Michael Heinrich-ek honen adibide argi bat ematen du bere *Crítica de la Economía Política* liburuan (224. orr., 2018ko edizioa, Guillermo Escolar argitaletxea.). Dioenez, BMW markaren ekoizpen-planak krisi baten erdian handitu ziren, akziodunen batzarreko presidentearen arabera merkatuan auto gehiegi zeudelako, baina oso gutxi zirelako BMW markakoak.

7 Ekonomia-adierazle askok etortzear legokeen geldialdi ekonomiko orokorra iradokitzen dute. Adibidez, *El S&P 500 se desploma un 4 % en su mayor caída diaria en dos años* (2022ko maiatzaren 18) testuak, eleconomista.es-en argitaratuak. Aurreikuspen ekonomikoei buruzko informazio gehiago: Espainiako Bankua (2022), *Proyecciones macroeconómicas de la economía española (2022-2024)*.

8 Europako Banku Zentrala. 2022ko ekainaren 9ko prentsaurrekoa (ecb.europa.eu)


9 Blanco Moro, V. *Los economistas se creen las 3 alzas de tipos del BCE que adelanta el mercado* (2022ko maiatzaren 17) eleconomista.es

«Klase- feminismoa» kontzeptuaren genealogia eta mugak


24

Testua — **Isabel Benitez**

Irudia — **Laia Blasco**



Feminismo liberalaren aurrean, antikapitalismoaren baitako hainbat sektorek «klase-feminismoa» kontzeptua hartu zuten. Urteetan zehar nozio horrek hainbesteko elastikotasuna hartu du, non teoria dualak eta interseksionalak babestu eta biziberritu dituen, osotasunari erreparatzen dioten teorien eta estrategien kaltetan. Geldialdi edo atzerakada politiko horrek (maiz aldarrikapen defentsiboen bueltan sortzen diren masa-mugimenduekin bat eginda) klarifikazioa ideologikoa eta eztabaida politikoa geldiarazi ditu. Horrela, bidea libre utzi dio ezkerreko erreformismoari eta populismoari, hots, benetako «zentzu komun» hegemonikoei.



**«Egia da kritikaren armak ezin
duela armen kritika ordeztu, botere
materiala botere materialaren
bitartez eraitsi behar dela, baina
teoria ere botere material bihurtzen
da masak bereganatu bezain laster»**

— Karl Marx

A sko idatzi da sozialismoaren porrot ideologikoari buruz, baina gutxiago sexu/genero berdintasunaren aldeko borrokan porrot hori nola adierazi den. Zehazki, 1960ko hamarkadaren amaieratik aurrera, marxismoak gizarte kapitalistetan emakumeen zapalkuntzari aurre egiteko tresna propiorik ez zeukala zioen topiko teorikoaren eta erakunde komunistak definizioz matxistak zirelako ustearen inguruan mamitu zen. Batere originala ez den lotura horrek, marxismoaren gaitzespen orokortuarekin batera, mimetizatu egin zuen Marxen pentsamendua eta prozesu iraultzaile sozialisten esperientzia emantzipatzailea mugatzeko erabili nahi izan diren erreduktionismo obrerista eta ekonomizista estutik aldentzen zen edozein zapalkuntza mota.

Dena den, Roque Daltonek zioen bezala, «materia gogorra da, materia suntsiezina da». Azken bi hamarkadetakotako krisi kapitalistek eta kapitalismo arautuaren ilusio keynestarra itzaltzeak eskutik ekarri zuten mundu osoko nekazarien kapa zabalen eta milioika emakumeren proletarizazioa bizkortzea^[1], eta justizia sozialaren gaiaren kooptazio eta birnorabidetze ideologikoko prozesuak areagotzea, espezializazio eta segmentazio korporatiboa ardatz dituen nazioarteko erakundearen agendarantz^[2]. Alabaina, horrek *Marx ezkutu* bat berraktibatu zuen. Tradizio sozialista/komunistaren Marxen biziberritze hori krisiak karakterizatzen ahalegindu da (irabazi-tasaren beheranzko joeraren legea balioduna ote zen aritzen ziren eztabaiden bueltan) gai operatiboek dagokienez: plangintza ekonomikoaren aukera teknikoak, ekologikoak, arraza...

1980ko hamarkadako erreakzio neoliberealean –Sobietar Batasunaren desegitearekin, Europako alderdi/sindikatu komunisten etorrera eta Losurdok kontatzen duen *mendebaldeko marxismoaren* likidazionismo ideologikoa tarteko–, «emakumearen auzia», praktikan, estatuen politika publikoen hedapen utopiko baten besoetan erortzen utzi zen (zerbitzu publikoak, hezkuntza eta kultura erreformak...), zeinak apurka-apurka «aukera berdintasunaren» azken helmugara eramane behar gintuen. 1990eko eta 2000ko hamarkadetan, «pobreziaren feminizazioaren» aurkako borroka autobia pribilegiatua izango zen, bere egiturazko doikuntza planekin eta deslokalizazio industrialarekin, desjabetze eta birmoldaketa proletarioko mekanismo berritzaileak hedatzeko, eta eragin berezia izango zuen Hegalde Globaleko emakumeengan. Horrek bereziki etxeko langileen edo sexu- eta ugalketa-turismoarekin lotutako emakumeen (alokairu-sabe-


lak) esportazio espezializatuaren forma hartu zuen. Baina zentro inperialistan ere igarri zen: zerbitzu publikoak desegin ziren, bizi-baldintzak garestitu ziren eta azpienplegua orokortu zen (aldi baterako kontratuak, lanaldi partzialekoak...). Edonola ere, nazioarteko lan-indarraren feminizazioak eta kapitalismoan *osotasun gisa* izandako erreproduktzio krisiek «emakumearen auziaren» garrantzia elikatu zuten, ez bakarrik nazioarteko burgesiaren *think tank*entzat –horiek instrumentalizatu egiten zuten auzia, nazioarteko proletalgoaren aurkako politika ekonomikoak legitimatzeko edo 1970eko hamarkadatik aurrera sortutako bide politiko-instituzionalen bidez birbideratzeko–; izan ere, era berean, eta hau da interesatzen zaiguna, agerian utzi zuen auzi hori estrategia iraultzaile baten baitan artikulatzeko premia.

Espainiako estatuko masa-fronte feminista baten eraketa garaikideak, azkar esanda, hiru une kritiko izan ditu. Lehenik eta behin, ahots propioz mintzatu ziren talde feministen goraldia izan zen 2011n, M15aren testuinguruan. Bigarren mugarria 2014ko udan iritsi zen, Alderdi Popularraren gobernuari haurdunaldia borondatez eteteko legea erreformatzeko saiakera zapuztu zitzaionean. Garaipena Gallardon ministroaren dimisioarekin irudikatu zen hilabete batzuk geroago, 2014ko iraillean, eta «Ez naiz enkargu bat betetzeko gai izan» titularra izan zuen; Estatu osoan kolektibo feminista autonomoen ugaritzea elikatuko zuen, baina erakunde politiko eta sindikaletan «agenda feminista» berraktibatzea ere ekarri zuen. Hirugarren unea 2017an hainbat tokitan hasitako deialdiek osatu zuten, besteak beste Polonian –hemen abortatzeko eskubidearen murrizketagatik ere izan zen–, Argentinan, AEBn eta Europa mendebaldeko zati batean hasitako deialdiek, Espainiako estatuan 2018ko eta 2019ko M8rako greba orokorrerako deialdi bat formalizatzeraren eraman zutenak –CGTk deituta eta, formalki edo isilbidez, ezker sindikalaren beste indar batzuek lagunduta–.

Faktore *domestikoen* multzo horrek sexuagatikotik generoagatikotik zapalkuntzari dagokionez berrarmatze teoriko, politiko eta ideologiko antikapitalista baten beharra piztu zuen, baina badirudi –beste kontu batzuekin alderatuta– ez aurrera ez atzera dagoela, inspirazio marxistako militantzia antikapitalistaren esku-hartze politikoa oztopatzen eta masa-fronte feministaren joko-zelaian. Artikulu honen helburua beharrezko klarifikazio politikoa zailtzen duten oztopoak aztertzea da, «klase-feminismoa» kontzeptuaren orokortu edo ugaltu izana ardatz hartuta.

**Nazioarteko
lan-indarraren
feminizazioak eta
kapitalismoan
osotasun *gisa* izandako
erreprodukzio krisiek
«emakumearen
auziaren» garrantzia
elikatu zuten, ez
bakarrik nazioarteko
burgesiaren *think
tank*entzat, eta
agerian utzi zuen
auzi hori estrategia
iraultzaile baten baitan
artikulatzeke premia**





Antikapitalismo marxista aparatu kritiko propio bat zabaltzeko edo mobilizaziotan «espontaneoki» agertutako berehalako artikulazio teoriko-politikoan txertatzeko aukeren aurrean zegoen. Bidegurutze hori ebazteko, «klase-feminismoa» nozioa hartu zen aterki moldakor baina autolimitatu gisa

Masa-fronte *feminista* baten gorakadaren aurrean –edo krisien inpaktuen kanalizazio feminista, gorantz doan nazioarteko proletariotza feminizatuago baten aurrean–, antikapitalismo marxista bi aukeren aurrean zegoen: aparatu kritiko bat heda zezakeen mobilizazio horien koordinatu soziopolitikoak kapitalismoaren dinamikaren berotan *ulertu* ahal izateko, ala bere burua mobilizazio horietan «espontaneoki» agertutako berehalako artikulazio teoriko-politikoan txertatzea. Bidegurutze hori bigarren aukeraren alde eginda konpondu zen, «klaseko feminismoa» kontzeptua aterki teoriko-politiko gisa hartuta, baina horrek, oso moldakorra izanagatik, ageriko mugak zituen.

«KLASE-FEMINISMOAREN» MUGA LAUSOAK

«Klase» formula lurrean nola-halako marka bat marraztera etortzeko asmoz azaldu zen, klasearteko ahizpatasunaren eta berdintasun-desiraren instrumentalizazio inperialista eta merkataritzakoaren aurka. «Klase-sindikalismoa» kontzeptuaren kalko bat da, nahiz eta ez den beti horrela aitortua izan, hau da, langile-klasearen zerbitzura zeudela esan arren, diruz lagundutako agenteak, edota sindikatu horiak edo korporatiboak ziren aldetik, estatu kapitalisten eta bake sozialaren agente gisa jarduten zuten langileen antolakundeen kontrakoa zen. Klase-sindikalismoak borroka ekonomikoaren eta politikoaren arteko harreman estua eta beharrezkoa azpimarratzen zuen, eta bizi-baldintzen aldeko borroka-estrategia iraultzaile baten barruan artikulatzeko beharra nabarmentzen zuen, borroka bera helburutzat hartu gabe. Bestalde, «klase-feminismo» nozioak berdintasuna *langile-klaseko emakumeen ikuspegitik* lortzea izango luke abiapuntu, hau da, adierazten zuen ez dagoela sexu/generoagatiko zapalkuntzaren adierazpen emantzipatzailearik klaseen arteko konfrontaziotik *kanpo* (*emakumeen* bizi-tzak ere berdin-berdin zeharkatzen baititu), edo, argi eta garbi esanda, «feminismo guztiak klase-feminismoa direla» edo guztiek «dutela klasea».

Horrela, «klase-feminismoak» abiapuntutzat hartu zuen kapitalismoaren baitan gaindiezina den antagonismoa (klase-borrokan adierazten da), eta «emakume» kondizioan oinarritutako fronte politiko komun bat ezartzea eragotzi nahi zuen (edozein izanda ere bere determinazio edo definizio biopsikosoziala). Eta azpimarratu zuen, halaber, masa-frontearen barruan aldarrikapen jakin batzuk formalki edo azaletik bat etorri arren, batzuek kapitalismoa eraisteko interesa dutela, desberdintasun orokor eta espezifikoaren iturri nukleartzat

hartzen dutelako, eta soldatapeko lana deuseztatu nahi dutela, eta beraz, klase sozialak desegin eta berdintasunezko gizarte bat eraiki zentzu guztietan... baina badaudela beste batzuk gai horiek guztiak *soberan* dituztenak, edo *ortzi-muga utopiko-abs-traktu-zehaztugabe* batera baztertzen dituztenak eta eguneroko esku-hartzean arbuiazen, edo are gehiago, modu irekian baztertzen eta borrokatzen dituztenak forma eta adierazpen teorikoan eta antolakuntzan. Anbibalentzia ageriko horren ondorio erreala da bidea irekita uzten zaiela «oinarria zabaltzeko» edo «indarrak metatzeko» taktika oportunistei, «espontaneoki» adierazten den adostasunaz aparteko beste bektore politikorik ez dutenei.

Kontzeptuaren potentzia zen lubaki esplizitu bat ezartzen zuela, eta horrek transbertsala era klaseartekoa zen ahizpatasun unibertsalaren sorginkeria hausten zuela. Halaber, erreferente intuitibo batetik (langile-mugimendua) «klase-ikuspegia» aktibatzeke balio zuen. Horren potentzialtasuna zera zen, «emakumearen auziaren» ibilbide politikoa berriro lotzeko tradizio sozialistari egon zen bigarren une bat sortu zela, zeina «bigarren olatu» feministan ostrazismora kondenatu baitzuten eta 1980ko hamarkadan lurperatu.

Hala ere, emakumearen auzia tradizio sozialistari lotzeko une hori ez zen iritsi –edo iristear dago–, eta hor egoera larritzen zuena zera zen, «klase» nozioak eskaintzen zuen demarkazio politiko eta ideologiko hori parlamentuko programa erreformistari buruzko kritikan nahikoa ambigua zela, eta, beraz, kontraesankorra bere praktika politikoan. Hau da, ez zien konfrontazio *kualitatiborik* egiten birbanaketan oinarritutako politika korporatiboei, ezta zapalkuntzen eta politika berriak eta zaharrak sustatutako beste politika sektorial batzuen arteko lehiari ere, zeinak ez baitzuten zailtasun jartzen ez normaltasun kapitalista eta ezta indar-korrelazioa ere. Aitzitik, metaketa eta esplotazioa modu eraginkorrean koipeztatzen zituzten, giza baliabideen aprobetxamendu eraginkorrean zeuden distortsioak ezabatzen zituztelako –1970eko hamarkadan Chicagoko Eskolak jada teorizatu zuen arrazakeriak, matxismoak edo homofobiak ekoizpena arbitrarioki nola oztokatzen duten–. Era berean, sexuak/generoak eragindako zapalkuntzaren aurkako borrokaren ikuspegi *pluralista* sustatu zuen, hau da, «bakoitza berean» espezializatutako kolektibo eta plataformen konfederazio agonikoa. Klase-borrokaren ikuspegitik jarrera bat kontrajarri beharrean –horrek ez du inola ere esan nahi printzipio hutsengatik erreforma edo aldaketa formalak ukatu behar direnik–, «klase-feminismoari»

lotzen zitzaion aktibismoaren zatirik handienaren praktika politikoa salaketa moralean, preskripzio etikoetan, lege-erreformetan eta aurrekontuko partida *gehiago* lortzean oinarritzen zen, M8aren deialdi bakoitza antolatzen zuten espazio unitario ez-mistoetan zentzu komun feministan adierazten zen terminoei jarraikiz.

FEMINISMOAREN ETXE HANDI ESTUA

Agian, 2000. urtearen bueltan, ez ziren *nahikoak* kapitalismoaren dinamikaren baitako masa feministen mobilizazioen koordenatu soziopolitikoak *ulertzeko* aukera emango zuen aparatu kritiko propio bat hedatzeko baldintzak; izan ere, une horretan ezker antikapitalistak Nestor Kohanek «*post metafisika*»^[3] deitu zuenak utzitakoari. Espainiako Estatuan, 2010eko hamarkadan eta baita M15eko mugimenduaren inguruan ere, «feminismoa» «sexualgatiko/generoagatiko berdintasunaren aldeko borrokaren» sinonimo gisa tronuratu zela. Marxismoa eta tradizio sozialista eremu akademikotik eta gizarte-mugimenduen aktibismotik ezabatzeak libre utzi zion bidea eremu hori klase-borrokatik kanpora kokatutako sexu/genero desberdintasunari lotutako prestakuntza politiko, teoriko eta antolakuntzazkoari, *ex novo* sortua balitz bezala.

Beraz, alde aurreko hausnarketa, aurrerapen eta analisi iraultzaileak ezagutu gabe, erabat *naturala* zen, ez bakarrik korrante politiko feministan sartzea, baizik ahots legitimo bat gehiago izatea bertan, hori bai, oso oinarritzko «klase» perimetroa markatuta. Alabaina, jarrera *positibo* horrek *ukapen* bat ere bazekarren berekin: Heidi Hartmannen «marxismoa sexuari itsua» delako kritika feminista automatikoki onartzea, eta, horrekin batera, marxismoa *kanpotik osatu* behar zelako ustea. Ukapen horrek, bere barneko aniztasuna gorabehera, feminismoa korrante ideologiko eta politiko gisa kohesionatzen zuen, eta marxismoari errektibo zitzaizkion hainbat argudio hartzen zituen (hain marxianoak ez diren Marxen bertsio ezberdinetatik zati solteekin desitxuratuak, edo are okerragoa, batzuetan hura zuzenean manipulatzeko zutenak); argudio horiek elkarren artean desberdinak bezain zorrozatasun falta handikoak ziren. Jarrera teoriko horrekin batera, «tik» antikomunista irekiak edo ezkutuagoak ere bazeuden.^[4]

Ikuspegi «feministak» «klase-ikuspegiaren» gainean lortutako garaipen ideologikoaren gailurra zera da, hamabost urte geroago anatema dela antikapitalismoaren lerroetan emakumearen auziari dagokionez tradizio sozialistaren genealogia eta feminismoarena kualitatiboki diferentzial gi-

sa identifikatzea eta seinalatzea ^[5] (etiketekin edo etiketarik gabe), baita beren burua ikuspegi sozialista batean kokatzen dutenen artean ere. Aitor-tu gabeko porrot horren sakontasunaren adibide argia da neomaskulinismoarekin, ultraeskuinarekin eta «rojipardismoarekin» parekatzen direla emakumearen auzian ikuspegi sozialistaren eta feministaren arteko tentsio politiko historikoa eta garaikidea ez direla *adiskidetzeko modukoak*, ezta terminologiara mugatzekoak ere, *iradokitzer*a auzartzen diren horiei. Ez dela «teorizisten edo in-

**Ikuspegi «feministak»
«klase-ikuspegiaren»
gainean lortutako
garaipen
ideologikoaren
gailurra zera
da, hamabost
urte geroago,
emakumearen
auziari dagokionez
tradizio sozialistaren
genealogia eta
feminismoarena
kualitatiboki
diferentzial gisa
identifikatu
eta seinalatzea
anatema dela
antikapitalismoaren
lerroen barruan**

teletualisten bizioa» jakitea eta seinalatzea sexu/ genero zapalkuntzari buruzko eztabaidak (komunisten termino kategorial marxianoei eta antolakuntza- eta interbentzio-terminoei dagokienez) ezin direla «kategoria» feministen bidez adierazi. Ausardia hori bultzatzen duena, tropa erreakzio-narioak ez bezala, tradizio marxistak eta sozialistak garatu behar duen gaitasun erradikalaren hedapen garaikiderako desira bat da, klase-kontzientzia handitzeko eta *iraultzarako* indarrak metatzeko gaitasuna duen estrategia antikapitalista batean aurrera egiteko balioko duena, eta ez *deus ex machina* baten zain dagoena eguneroko miseriara egokitze-ko eta bertan *ahalduntzeko*.

Itxitura ideologiko hori da aparatu kritiko propio hori garatzeko oztopoetako bat. «Klase-feminismoa» kontzeptuak, bere garaian, feminismo liberalari galga jartzeko balio izan bazuen ere, korronte feministaren mugetan mekanikoki egokitu zenez, ez zen garatu edo sakondu feminismoaren ildo nagusiek korronte politiko gisa, bere itxurazko aniztasun osoan, ahalbidetzen zutena edo *barneratu* zezaketena baino haratago. Eta horrela, «itsutasuna» eta Marx funtsean ekonomialari bat izan zelako topikoa ontzat emanda, aktibismo antikapitalista behin-behinekoz «klase» kontzeptu lauso horren atzean gordeta, erreferenteak eta babes politiko eta teorikoko puntuak bilatu zituen gertuen zuen horretan, «bigarren olatu feministan», eta haren txingar teorikoen gainean sostengatu zen uneko mobilizazio zikloa (ekintza kolektiboa zalantzan jartzen zuen aldetik, «hirugarren olatuak» ez zuen balio, Andrea d'Atrik azaldu zuenez Judith Butlerri egiten dion kritikan).

«Klase» kategoriarekin definitzen bazen ere, aktibismo feminista horrek ez zuen lehentasunez-

kotzat eta premiazkotzat jo bidaia hori kategoriatu marxianoak ondo menderatuta eta ezagututa egitea –lana, balioa, lan-indarra, klase-kontzientzia, klase-borroka, erreproduktzio soziala–. Hala ere, dinosauroaren mikroipuinean bezala, kategoriatu horiek hortxe zeuden, «haien zain», beren erara, bigarren olatuko ehunka liburu eta panfletotan. Eta horrela, aktibismo feminista «sozialista» edo «marxista» garaikidearen gehiengoarentzat, Marx-era, marxismoa eta «emakumearen auzira» hurbiltze substantiboa ez da Marx-etik edo ikuspegi materialista historiko eta dialektiko batetik egin; feminismo autonomoaren, erradikalaren eta, batez ere, korronte feminista sozialista/marxistaren iragazki politiko, ideologiko eta antolakuntza mailakoaren bidez gertatu da, eta koktelera eklektiko eta aldakor bezain politikoki antzua izan du ondorio.

Izan ere, mendebaldeko feminismoaren ibilbidea 1970eko hamarkadaz geroztik (pluraltasuna pluraltasun), nonbait bere existentzia propioaren beharra justifikatzen zuen adostasun *espontaneo* bat hedatu bazuen, hori «Marxez haratago», «Marxen aurka» edo «Marx gorabehera» jardutearen nozioan izan zen. Praktikan, haratago joate horrek kategoriatu marxianoetatik zuzenean berdintasunaren auzira hurbiltzeko ahaleginak oztopatzen zituen. Horren ordeztu, *fast food marxismo* bat eskaini zen, intelektualki toxikoa bezain deformatua^[6]. Nahiz eta beti gogorarazten dugun –eta ez dugun ahaztu behar– mendebaldeko erakunde «komunisten» ildoan ere lan bikaina egin zutela, eta beren erara bide likidazionista berean sakondu zutela, kontuan hartu behar da, halaber, marxismoaren eta sexualgatiko/generoagatiko desberdintasunen emantzipazioaren arteko «dibortzio» edo «gaizki irtendako ezkontza» ospetsua nondik datorren, hau da, oro

**Aktibismo feminista «sozialista»
edo «marxista» Marxera feminismo
autonomoaren, erradikalaren eta, batez
ere, korronte feminista sozialista/
marxistaren iragazki politiko, ideologiko
eta antolakuntza mailakoaren bidez gertatu
da, eta koktelera eklektiko eta aldakor
bezain politikoki antzua izan du ondorio**





har, horren jatorria sexuaren/generoaren arabe-rako emantzipazioaren aldeko borrokan borroka antikapitalista praktika politikoaren gune estrate-giko gisa hartzeko borondate ahula, sendotasunik gabea edo zuzenean kontrakoa zuten lekuetan da-goela (hau da, lehenbizi feministak ziren, eta gero antikapitalistak, komunistak, sozialistak...).

NORK UKA DEZAKE VALENTINA TERESHKOVAREN LORPENA?

Feminismoaren baitan tresnak bilatzearekin ba-tera, «feminista» kontzeptuak barnebiltzen duena zapalkuntzaren aurkako borrokaren etxe komun plural moduan blindatu da. Paraleloan, «sozialis-ta» kontzeptuaren sendotasun herdoilduak –me-moria historikoa degradatu ahala, militantzia des-politizatu eta desteorizatu egiten da– nahasketek eta adabaki eklektikoek ordezkatu dute –kanpotik marxismoa osatuz, esan dugunez–, eta horietan nahastu egiten dira figura indibidualak, erreforma eta prozesu iraultzaileak eta tradizio sozialistaren antolakuntza-formulak... Hori bai, betiere, selekzio horiek asimilagarriak badira feminismoaren ildo nagusietarako, eta leinuan parte hartzea legitima-tzen badute: espazio ez-mistoak, ahalduntzea eta hedatzen diren testuinguru iraultzailetik isolatuta-ko politika erreformistak (abortatzeko edo dibor-tziatzeko eskubideak izaera, oinarri eta eragin bera izango balu bezala gizarte egitura kapitalistan edo sozialismorako *trantsizioan*). Maniobra bitxi ho-rrek, zeintzuen bidez tradizio sozialista emakume gutxi batzuen lanetara murriztu zen eta zeinetan emakume horiek indibidualizatzen eta goratzen diren beren militantzia sozialista eta komunista osotik isolatuta –ez dira soilik emakumearen auzira mutilatzen eta mugatzen–, normalean pentsakizun bera dakarte: egin zituzten balentria feminista ho-riek indibidualak izan zirela, beren alderdiko mili-tantzia eta kamaradak eduki *arren* lortutakoak, *eta ez haiei esker*.^[7]

Bere leinua tradizio sozialistan bilatu ordez fe-minismo sozialista/marxistan bilatzeko joera dei-garrienetako bat, kontzienteki edo inkontzienteki egina, alde batetik Engelsen *Familiaren, jabego pri-batuaren eta Estatuaren jatorria* eta, bestetik, Lise Vogelen teoria unitarioaren proposamena goraipa-tzean datza. Lehenak Frigga Haugek «bi ekoizpen mota, bizitzaren ekoizpena eta bizitza-bitartekoe-na» izendatzen duen horretan sostengatzen da, eta Voge-lek aldiz, nabarmen kritikatzeko eta seinalatzen du proposamen hori bere teoria unitarioan.^[8]

Disoziazio teoriko-politiko horrek gaur egungo sostengua puntuak ere aurkitu ditu XX. mendearen

bigarren erdiko literatura feministakoak baino so-fistikatuagoak eta akademikoki errentagarriagoak edo errespetaagarriagoak diren proposamenetan, adibidez, Haugek aipatutako feminista marxisten nazioarteko topaketen oinarritzko tesietan Erre-produkzio Sozialaren Teoriaren anbiguotasun teo-rikoan, «% 99ren aldeko feminismoaren» aldeko apustu politikoan eta masa-frontean feminismo liberalaren aurkako borroka ideologikora muga-tzean^[9]. Hala ere, feminismo korporatiboaren aur-kako *borroka ideologikoa* gehiegizko enfasia jarri da –zalantzarik gabe jorratu beharrekoa bada ere–, eta horrek ezkerreko erreformismoaren^[10] eta po-pulismoaren aurkako borroka ideologikorako bi-dea saihestu du, zeinak militantziako guneetan eta masa-tribuna ideologikoetan askoz ere presentzia handiagoa duten feminismo liberalak eta hark de-fendatzen duen ahizpatasun lizunak baino, ontzat ematen badugu, behintzat, Espainiako estatuko ak-tibismo feministaren zatirik handiena *antikapita-lista* dela.

Zapalkuntza kapitalista patriarkala, patriarkal kapitalista –osotasun kapitalista konkretu eta kon-traesankorraren ikuspegiari kontrajarria– ulertzen duen dualismo teorikoaren berragertzeak, «kla-se-feminismoaren» formulazio lausoei ez ezik, osotasunaren teoria hori hedatzeko hautagai gisa aurkeztzen diren apustu teorikoei ere eragiten die. Eta, era berean, badu bere zehaztapen operatiboa izaera korporatiboko lege eta erreformen joko-ze-lai politiko burgesean, non *radfem*, erreformista eta queer aktibismoaren arteko ika-mikak izaten diren, dauden nazioarteko proletarioen segmentu espezifikoen bizi-baldintzak hobetzeko aukeraz ez-tabaidatzen dutenean kapitalismoaren dinamika-tik deslotuta, edo harekin harreman abstraktu eta deklaratio hutsarekin, eta nahikoa dutenean «ka-pitalistei interesatzen ote zaie» galdera, nola?, zer-gatik? edota edozein baldintzatan? galdegin gabe.

Feminismo sozialista/marxista emakumearen auzian «klase-feminista» edo antikapitalismora-ko ekintzarako enbor genealogiko pribilegiatua bihurtu den heinean, ere zailagoak dira klase in-dependenten eta iraultzailearen estrategia taxutze-ko beharrezkoak diren zereginak. Klarifikazio hori gabe, ezinbestean, masa-frontean esku-hartzearen ortzi-muga politikoa erreforma partzialen ingu-ruko erresistentzia hutsera mugatzen da, eta az-kenean, «izendatzaile komun minimoarekin» bat etortzen amaitzen du, tresna politikoak fetitxiza-tzen dituzte (adibidez, espazio ez-mistoak edota grebak) eta erreforma partzialak (kuotak, lan-kon-trataziorako enpresa hobariak, zerbitzu publikoen



hedapena, oinarritzko errentak...) bere horretan helburu bihurtzen dituzte ustezko indar-metaketa antzu baten *momentum* eterno batean, hain zuzen ere, hasiera-hasieratik eten dutelako apustu horien eta klase komun eta bateratu bat lortzeko estrategia sozialistaren arteko harreman zehatza.^[11]

FEMINISMO MARXISTA/SOZIALISTAK DUALISMOAREKIN DUEN ZORRA

Teoria dualen eta feminismo marxista/sozialistaren antzekotasuna ez da nolabaiteko atribuzio bat, tradizio feministaren baitako adostasun tesi bat baizik. Amorós eta De Miguelen teoria feministaren genealogiak, baita Nancy Holstrom eta Irish M. Young-enak ere, bat datoz feminismo sozialista-marxistaren lehen urratsak bi sistemen teorien –patriarkatua eta kapitalismoa– babesean eman zirela. Haren garapen teorikoa feminismo liberalaren aurkakoa den heinean, eta «teoria marxista tradizionalak emakumeen zapalkuntzaren oinarriak, egitura, dinamika eta xehetasunak ulertzeko dituen gabeziak» esatean feminismo erradikalarekin bat datorren heinean, korrante feminista sozialista/marxista marxismoaren ustezko erreduktionismo ekonomizista edo obreristatik ihes egin nahi horretan kokatzen da. Arrazoi hori bera hartzen du oina-

rri, bestalde, «klase-feminismoak» bere eguneroko erabileran. Beraz, hel diezaigun horri.^[12]

«Feminismo erradikalaren eta marxismoaren onena» konbinatzeko ahaleginari «feminismo sozialista» deitu zioten, eta garai hartako erreferentzetat jotzen da Juliet Mitchellen *Woman's State* (1971) testua^[13]. 1970eko hamarkadan, haren ikerketak familia-batasunean, gizarte kapitalista garaikideetako haurren zainketan eta etxeko lanetan zentratu ziren; Juliet Mitchell, Margaret Benston eta Peggy Morton-enak –etxeko lanen eta lan-indarraren erreprodukzioaren arteko erlazioa mahai-gaineratu zuten– eta Mariarosa Dalla Costarenak izan ziren ekarpen gehienak. 1980ko hamarkadaren erdialdera arte, Barretten ikuspegi estrukturalista (*Women's Oppression Today*, 1980) nagusitu zen. Ikuspegi horrek «ideologia patriarkal» baten existentzia defendatu zuen, sistema ekonomikoarekiko (kapitalista) «autonomia erlatibo» bat lukeena. Althusserren ekarpenekin determinismo ekonomikoa determinismo diskurtsiboak ordezkatu zuen, eta generoari buruzko ikerketa kulturalak eta beste formula postmarxista batzuk ekarri zituen; azken horiek eragina izan zuten feminismo autonomoan eta masa-fronteko beste adierazpen ezkertiar batzuetan. 1980ko eta 1990eko hamarkadetan, femi-

nismo sozialista/marxistan gertatzen ari ziren eztabaidak urritu egin ziren arlo akademikoan, eta indarra generoaren inguruko ikerketa kulturek hartu zuten. Eredu politikoan, berriz, «identitatearen inguruko forma lokal eta partikularistak» nagusitu ziren.^[14] 1980ko hamarkadaren hasieran hautsi egin zen akademikoen eta militantziaren arteko lotura, eta, horrek, *New Left Review* aldizkarian «etxeko lanen» inguruko eztabaida bizietan parte hartu zuten erreferente nagusiak hainbat norabide teorikotan eta politikotan sakabanatzea ekarri zuen.^[15]

Susan Fergusonek emakumeen zapalkuntza ulertzeko bi joera nagusi identifikatu zituen feminismo sozialistaren baitan: batetik, kapitalak irabaziak lortzeko bidean emakumearen zapalkuntza ezinbesteko baldintza funtzional gisa azaldu zutenak leudeke; bestetik, gizonek talde sexual eta ekonomiko gisa nagusitzeko duten joera sozio-biologikoaren arabera azaldu zutenak (une horretako sistema ekonomikoak hibridatutako edo zeharkatutako joera). Hasieran, klaseari dagozkion azterketak eta klase-borroka emakumearen emantzipaziorako funtsezkotzat jotzen baziren ere, feminismo sozialistaren baitako eztabaida berriro itzuli zen teoria dualaren edo bi sistemen eremura: «marxismoa, asko jota, bigarren mailako kontsiderazioa izango da, eta, kasurik txarrean, garrantzirik gabeko zerbait», dio Fergusonek. Dena dela, analisi marxistak feminismo sozialistaren baitan bete behar zuen tokiaren inguruko eztabaida izan zen etxeko lanen inguruko eztabaiden epilogo; zehatzago esanda, mugimendu feminista beltzak (Combahee River Collective antolakundea) zalantzan jarri zuen ordainsaririk gabeko etxeko lanak izan behar duen emakumeen zapalkuntzaren kategoria unibertsala, eta, horrek auzitan jarri zuen feminismo sozialistaren ikuspegiaren mamia (Ferguson, 2020:107). Holmstromen arabera (2011), kolektibo feminista beltzek arrazaren afera mahaigaineratu izanak bi aukera handiren artean aukeratzera behartu zuen feminismo sozialista/ marxista: osotasun kapitalista kontuan hartzera edo «sistemak» biderkatzera.

Lehenengo, *teoria inklusibora* edo osotasun kapitalista kontuan hartzen duenera itzultzea esan nahiko zuen, berak dioen bezala, marxismoak arrakasta txikia izango baitzuen ustezko erredukzio ekonomizistan edo berdintasunaren auzia politikoki gutxiestera jotzen duela interpretatzen bazen. Bigarrena, askoz ere moldagarriagoa zen mota guztietako agenda politiko oportunistetarako; klase-zapalkuntzari (kapitalismoa) eta zapalkuntza mas-

kulinoari (*patriarkatua*) zapalkuntza-sistema berri bat gehitzea izango zen (arraza). Aukera horrek berekin zekarren, era berean, zapalkuntza-sistema bat zehazki zer den definitzea, eta zenbat dauden, zein diren nahiz nola dauden lotuta elkarren artean argitzea; horrek, aldi berean, gizarte-zientzietako pluralismo komunerantz eta «irismen ertaineko» azalpen-teorietarantz hurbiltzea esan nahi zuen (marxismoaren moduko errealitate osoa barne hartzen duten marko teorikoen kaltetan).

Hautatu behar horretan, funtsezko gaiez (zenbat sistema dauden, nola erlazionatzen diren, mailakatu ote daitezkeen) era anbiguo batean mintzo ziren lanak ugaritu ziren, beren azalpenetan maila teorikoa saihesten zutenak eta analisi deskriptiboetan zentratzen zirenak, maiz zapalkuntza-esperientzietan jarriz fokua. Batzuek «kapitalismo patriarkalaz» edo sistema baten edo biren teoriak hitz egitea erabaki zuten, baina, Holmstromek dioen bezala, gakoa zen «produkzio-moduak ez zuela sexu-genero harremanek baino prebalentzia handiagorik emakumeen subordinazioaren berri emateko», eta puntu horretan hasi zen zabaltzen planteamendu marxistarekin paraleloan doazen kategorien erabilerak: «erreprodukzio-harreman» gisako terminoak txertatu ziren eztabaidan. Azken batean, feminismo sozialista kontzeptuak erreferentzia egingo zion «kapitalismoaren kritika marxista onartu zuten, baina emakumeen zapalkuntza klase-zapalkuntzara mugatu zitezkeen ideari –hala interpretatu baitzuten kritika marxista– uko egin zioten feministek egindako analisisiei». Haien esanetan, emakumeen egungo posizioa sistema ekonomikoaren –kapitalismoa– zein patriarkatua deitu zioten sexu-genero sistemaren ondorio zela azaltzen digu Holmstromek.

FAKTOREEN ORDENAK PRODUKTUA ALDATZEN DU



Ikus dezakegunez, «klase-feminismoa» lubaki-nozio bihurtu zen, berarekin baitaramatza teorikoki eta politikoki, lehenik, hegemonia *feministaren* errai ideologikoetatik (izan abizenekin edo gabe), eta, gero, edo *paraleloan*, ekonomia politikoaren kritikaren, Marxen eta tradizio sozialistaren tripetatik jantzi nahi izateak sortutako oztopoak. Alabaina, faktoreen ordenak aldatu egiten du produktua. Egiari zor, teoria dualek ez zioten, ezta ahaleginik bihurrena eginda ere, behar bezalako azalpenik eman «zapalkuntza patriarkalaren» eta dinamika kapitalistaren arteko harremanari. Ez gara ari zapalkuntzaren jatorri premodernoren inguruko azalpen batez, baizik eta klase-borrokaren baitako

erlazio kontraesankorrez, haren efektu nahiz indargunez eta identifikatutako ardatz kapitalista/patriarkala teilakatzen dituen kapitalismoaren borroka-estrategiaz. Eta ez da izango saiatu ez zirelako.

Arazoa, beharbada, bigarren olatuan sortutako feminista sozialista/marxistek –gaur egun gertatzen ari den bezala– Marx aztertu gabe marxismoa «osatzeko» hartu zuten misioan datza, eta hori AE-Betako masa-mugimendu feministak planteatzen zuten kategoriaren apriorismotik abiatuta egitean, hots, *emakumea* kategoria gisa hartzean. Eta, lehia politikoen ibilbide historikoan kontzeptu horrek halaberharrez zenbait deklinabide onartu bazituen ere, apriorismoa izan da beti, eta hala izaten jarraitzen du. Aipatutako deklinabide horien bidez, izendapena plural bilakatu zuten (*emakumeak*) eta *atributu*-katalogo zabal bat gehitu zitzaizkion (klasea, sexu-orientazioa, identitate sexuala, arrazializazio- eta migrazio-prozesuak, prozesu kolonialak, nazionalak...), denak plano analitiko berean kokatuta. Adjektiboen segida horrek azkenean deskribapen-gaitasun hutsa bakarrik zin egiten zuen arren, apriorismoa da... ez zena orduan konpondu, eta itxura denez, orain ere ez.

Feminismo sozialista/marxistak ziurtzat jo zuen nazioarteko langile-klaseko emakumeen zapalkuntza, lehenik eta behin, emakume-izaerak azaltzen zuela, eta ez kapitalismoak produkzio-modu gisa duen dinamika. Beste era batera esanda, ez zuen fenomenoaren azaleko itxuratik harago sakondu, eta horrek ezinezko bihurtu zuen proletalgoaren segmentu jakin batzuek jasaten duten zapalkuntza zehatz batean eragiten duten harremanak eta bitartekaritzak ulertzea, ukatu gabe emakumeek leku esanguratsua dutela proletalgoaren segmentu horietan. Hainbat arrazoi direla medio, esentzializatorako eta arrazoiketa zirkularrerako joera gailendu zen, eta fenomeno partikularren deskribapenetan jarri zen fokua, horiek osotasunarekin duten harremanari entzungor eginda. Hori dela eta, ezinezko bihurtu zen egungo sistema gainditzeko helburua izango duen estrategia bat artikulatzea. Honako hauek dira aipatu ditudan arrazoi horiek: lehenengoa, azaleko analisisia egitea, *lana* eta *lan-indarraren* gisako kategoriak azken ondorioetaraino landu beharrean –Lebowitzek dioenez–; gero, ez du deskribapenaz harago sakontzen miseria zein biolentzia adierazle gehiago daudela langile-klaseko emakumeengan nazioarteko proletalgoko beste talde batzuegan baino, eta azken arrazoiak da horrek subjektibitate espezifikoak eraikitzen dituela –gauza jakina inondik ere, begi-bistakoa dena interseksionalitatara jo gabe ere–. Neurri batean,






horixe izan zen bigarren olatuko feminismo sozialista/marxistaren ildoak galdu zen bidegurutze bihurria: batetik, ordaindu eta merkantilizatu gabeko «etxeko lanari» buruzko eztabaida, eta bestetik, familiak, lanaldi osoko etxekoandreek eta lanaren banaketa sexualak osatutako hirukoa.

Nolabait ere, azaleratu egin zen Erreproduktzio Sozialaren Teoriaren promesak egun bizi duen geldialdi teorikoa, osotasuna aipatzen duen arren, bere burua erreproduktzio sozialaren kontzeptura mugatzen duenez, «feminismo marxistak erabiltzen duen bezala, eta horrek fokua generoak eta genero-zapalkuntzak kapitalismoan duten rolean jartzeko aukera ematen digu». Hori *familia heteropatriarkalaren* lan-indarraren erreproduktzio fisikoaren aspektuetan sakontzen duenean adierazten da. Nahiz eta teoria horretako erreferente nagusiek erreproduktzio sozialaren ulerkera zabalago bati erreferentzia egin edo beste agente batzuk gehitzen dizkion ekuazio horri, ez da zalantzan jartzen familiaren zentralitatea *gizakien ekoizpenerako* funtsezko elementu gisa, haren ustezko abantaila ekonomikoa eta «egonkortasun» direla medio –eta hori ez da arrazoitzen, nahiz eta zalantzan jar daitekeen migrazio-fluxuen bidez.^[16]

DUALISMOAREN (EDO INTERSEKZIONALISMOAREN) AZTARNA GARAIKIDEA

Etxeko lanaren inguruko polemikaz harago, teoria dualak joera handia zuten batere homogeneoak ez ziren «etxeko lanaren» iruditeriak unibertsalizatze (AEBetako klase ertainarenak edo Europako hegoaldeko gerraosteari lotu dakizkiokeenak), nahiz eta lanaldi osoko etxekoandreak irudia atzerakada soziologiko betean egon, kondizio femeninoaren eta lanaren banaketa sexualaren aniztasuna eta malgutasun historiko, sozial eta klasista gorabehera. Teoria dualen gakoa emakumeek ugalketa biologikoarekin, hazkuntzarekin eta zainketa-



rekin zerikusia duten lan ez-merkantiletan duten gehiegizko presentzian datza, kausa eta ondorio gisa, eta lehen esan bezala, horrek bide ematen dio arrazoibide zirkular bati: *gizonarekiko duten dependentzia ekonomikoak posizio horietan kokatzen ditu emakumeak, eta, aldi berean, posizio horiek gizonaren dependentzia ekonomikoa indartzen dute.*

Logikoa da, beraz, analisi horrekin bat datorren estrategia politiko nagusia erreformak exijitzea izatea, bai garai hartan, baita gaur egun ere. Erreforma horiek pertsona askoren eta langile-klaseko zenbait geruzaren eguneroko bizitzako hobekuntza puntuetan eragin handia izan badezakete ere, *ekoizpen-prozesutik* kanpo jarduten dute, eta ez diote helitzen familiaren, Estatuaren, migrazio-prozesuen eta ekoizpen-harreman sozial kapitalisten alderdi politiko-sozialari, ezta haren izaera gatazkatsuari ere (klase-borroka). Estrategia iraultzaileari subordinatuta ez dauden borroka ekonomikoekin gertatzen den bezalaxe, *borroka erreproduktibo partzial* horretatik ere ezin dira lortu kapitalismoaren funtzionamendua eta lan-indarraren hornidura kapitalista ukitu ere egiten ez duten *hobekuntza mugatuak* baino; horiek, asko jota, estratu sozial jakin batzuentzat izango dira. Bestela esanda, ezin zitekeen Selma Jamesek eta Dalla Costak proposatutako «subertsio komunitarioaren» desiratik urrunago egon.

Teoria dualek «*emakumeentzako*» espazio politiko bereizi bat sortzea onesten dute, eta estrategia sozialistatik ihes egitea bultzatzen dute antolakuntza-mailan eta maila politiko-ideologikoan, beste «sistemari» «dagozkiolako». «Patriarkatua» «kapitalista» den horren maila berean jartzeko saia-keraren gehiegizko enfasiak, zer eta boluntarismo deklarati- bo hutsagatik, langile-klasearen segmen- tuen botere estrategiko diferentziala ordezkatzeko asmoa ekarri du! Meikisins Wooden hitzetan, ez da, inondik ere, «harreman sozialen eta boterearen sakoneko analisisa»^[17].

Agian, matrize dualistatik sortutako kapitalismo patriarkalaren aurkako berrogeita hamar urteko teoriak eta praktikak nahikoak izango dira gu ber- rarmatzeko, modu argian eta anbiguotasunik gabe, tradizio sozialista/komunistaren arma historikoez kritikoki jabetuta, zorrotasun intelektual eta po- litiko handienarekin, baina «injerto eklektikoaren doktrina» duala edo interseksionala gaindituta.

APARATU KRITIKO EMANTZIPATZAILEA BERRERAIKITZEA

Lehen esan dugunez, feminismoa aterki ter- minologiko gisa blindatzearen atzean eztabaida teoriko zein politiko bat ezkututzen da, eta «kla- se-feminismoa» kontzeptuak ez du zentzu teoriko unibokorik bokazio antikapitalista orokor batetik harago. Horrek esan nahi du, funtsean, ez direla gauza bera tradizio sozialista eta feminismo sozia- lista/marxista, ezta «klase-feminismoa» eta «femi- nismo sozialista/marxista» ere, -honek ere jarrera kontraesankorrak ditu bere baitan- ; «erreproduk- zio sozialaren teoria» ere ezin dugu aurrekoen ba- liokidetzat jo, ezta azken hori «teoria unitarioaren» sinonimo gisa ere, literatura militante jakin bat ho- riek trukagarri edo sinonimo egiten tematu arren. Ez da gauza bera abiapuntua harreman sozial ka- pitalisten azterketa izatea, edo, kontrara, korrante politiko-ideologiko feministaren apriorismo poli- tikoak. Faktoreen ordenak irismen analitikoak eta emaitza bera aldatzen ditu.

Tradizio sozialista eta teoria unitarioa, edo, az- ken finean emakumeen azpiratze-mekanismoen azterketa Marxen kategorietatik dator. Argi dago haren ibilbidea ez dela zuzena izan, eta, hein ba- tean, haren bizindarra hainbat eztabaidatan antze- maten da; teoria dualekin duen tentsioa da «femi- nismo sozialista/marxistarekin» zuzenean duen tirabira-puntua.

Azkar esanda, «erreproduktzio sozialak» teoria unitarioan eta kategorio marxianoetan kapitalis- moa ekoizpen-modu gisa birformulatzeak inplika- tzen dituen *prozesu guztietara* garamatza, hau da, ekoizpen kapitalistako harreman sozialen segidara (formaren eta edukiaren aldetik); teoria dualak -li- teratura zaharkituan oinarrituta egon ala ez-, aldiz, esfera produktiboa eta inproduktiboa bereizten di- tuen eta «erreproduktzio soziala» familia-esparruan lan-indarraren erreproduktzio eta berrosatze *fisiko*- ra (egunerokoa, belaunaldi artekoa eta belaunaldi barnekoa) mugatzen duen ikuspegi erreduktzionis- tara garamatza.

Aitzitik, abiapuntu moduan kategoria marxianoak hartzeak apriorismoa –eta emakume-langileak erreprodukziorako elementu soil gisa hartzen dituen ikuskera esentzialista gorakorra– gainditzeaz gain, irteera ematen die interseksionalitateen kalezuloei, eta, hori egitean, modu esanguratsuan lotzen ditu zapalkuntza matxistaren aurkako borroka eta nazioarteko langile guztien borroka emantzipatzaileak



Aitzitik, abiapuntu moduan kategoria marxianoak hartzeak apriorismoa eta emakume-langileak *erreproduktzio* –ondorengoak izatea eta merkaturik kanpoko zaintza-lanak– elementu soil gisa hartzen dituen ikuskera esentzialista gorakorra gainditzeaz gain, irteera ematen die interseksionalitateen kalezuloei, eta, hori egitean, modu esanguratsuan lotzen ditu zapalkuntza matxistaren eta sexismoaren aurkako borroka eta nazioarteko langile guztien borroka emantzipatzaileak. Oinarria ematen dio klase-estrategia internazionalista bati, bere jardunean ez diona ihes egiten proletalgaia piztatzeko duten haustura guzti-guztiei aurre egiteari.

Hizpide dugun abiapuntuak hainbat aukera ematen dizkigu, besteak beste, hipotesiak aurreratzekoa, agertokiak aurreikustekoa, salaketa moralean esku-hartzeko bide-orri politiko *ofentsibo* eta gainditzailak diseinatzekoa, pultsio punitibista «espontaneoari» eustekoa, edo, kontrara, Estatua- ren boterea handitzeari bide ematekoa, «bizitzaren aldeko» zerbitzu publikoak galdeginez, eta hala, kapitalismoa betikotuz. Azken batean, sozialdemokraziaren praktikatik oso ezberdina izango den praktika politiko bat posible egiten du, eta indarrak metatzeko aukera berri bat zabaltzen du, militantziaren eskakizun pedagogikoetan eta prestakuntza politikoan ahalegin handiagoa egiten duena, baina, bereziki, *norabait* aurrera zoazela jakiteak ematen duen energiaz beteta dagoena. ●

ERREFERENTZIAK

1 Lanaren Nazioarteko Erakundearen datuen arabera, 2019an, eskuragarri dagoen azken datua, lanean zeuden soldatapekoen % 55 emakumeak ziren, eta ehuneko horrek joera gorakorra du 1991n serie estatistikoa hasi zenetik.

2 Prozesu horren analisirako, Latinoamerikako *feminismo autonomoaren* perspektibatik, ikus Falquet, Jules *Mujeres, feminismo y desarrollo: un análisis crítico de las políticas de las instituciones internacionales*. Desacatos: Revista de Ciencias Sociales, 11. zk., 2003, 13-35 or.

3 Postmodernismoaz, postestrukturalismoaz, postmarxismoaz... Nestor Kohanek *Nuestro Marx*en honela zioen: «Metafisika horiek guztiek batera “Ez dago subjekturik!” oihukatzen dute. Zerekin ordezkatzeko dute? Bada, aniztasunen edo «agenteen» sorta batekin, egituratzen dituen zentzu bateraturik edo klase-kontzientziatik ez dutenak, ezta borroka-esperientzietatik abiatutako nortasun kolektiborik ere» (2013:35).

4 Anekdotak oso esanguratsua: 2014an, martxoaren 8an Madril en egindako manifestazioan, PCEren lokal zahar bat okupatu zen, Marx Madera izenekoa (La Hoguera izena jarri zioten). Eskarmentudun militante feminista batek esprai beltz batez horma batean zegoen igitaia eta mailuaren irudia tapatu zituen. Esbastika bat estaltzen duenak bezala.

5 Ibilbide diferentzial horien azaleko errepaso historikoa egiteko, oso gomendagarriak dira Frencia, C. eta Gaido, D.-ren lanak: (2016) *El marxismo y la liberación de las mujeres trabajadoras: de la Internacional de Mujeres Socialistas a la Revolución Rusa* eta (2018) *Feminismo y movimiento de mujeres socialistas en la Revolución Rusa*. Ariadna Ediciones. Santiago de Chile.

6 Adibide askoren artean, Silvia Federicik marxismoarekin dituen diatribek espazio propioa irabazi dute desitxuraketan eta bat-bateko jarrera aldaketan adibide garaikide gisa. Laburpen gomendagarria: Aiestaran, I (2018) *Karl Marx y 'El capital' frente a las soflamas sin valor de Silvia Federici*. Rebellion.org-en.

7 Adibidez, Clara Zetkinen edo Kollontairen XIX. mendeko feminismoaren aurkako idazkiak berreskuratzea anakronikotzat jotzen da, eta, aldi berean, antolakuntzako edo eztabaida ez-mistoko formulak –koordinatu historikoak edo politikoak testuinguruan kokatu gabe– antolakuntza ez-mistoaren (hain berezkoa feminismo erradikalean) fetitxismoaren autoritate-argumentu gisa erabiltzen dira. Esate baterako, Zetkinen saialdiaz –kale egindakoa– hitz egiten dute, hau da, Leninen laguntzarekin alderdirik gabeko emakumeen nazioarteko kongresu interklasista bat sortzeko ahaleginaz aritzen dira, baina ahaztu egiten zaie boltxebikeen iraultzaren garaipenaren testuinguruan egin zuela esatea! Tradizio sozialistatik feminismoak *etxe komunerako* subsumitzeko duen joera horren adierazpen oso esplizitu bat honako hau da, adibidez: «Azkenik, “feminista” kategoria, kategoria historiko guztiak bezala, ezin da figura horiek uste zutenaren arabera aplikatu, errealtatearekin eta ematen diogun definizioarekin alderatuta baizik. Oso kontraesankorra litzateke metodo marxistarekin, eta are, bat etorriko litzateke idealismoarekin eta postmodernitatearekin, norbaitek bere burua feminista edo komunista izendatze hutsagatik (edo beste bat halakotzat izendatzen badu) katalogazio hori baliozkotzat jotzea. Gure irakurketaren arabera, Kollontaik emakumeen zapalkuntzari, erreproduktzio-lanei eta haien sozializazioari, Alderdi Boltxebikearen barruan batzar ez-mistoak sustatzeari, edo SESBren lehen garaia gidatu zuten politika publikoei eta familia kodeari buruz idatzitako idazkiak erraz onartuko litzuzke 60ko hamarkadatik aurrera sortutako feminismoak. Kollontaik bere burua Europako mugimendu sufragistaren aurka kokatzen zuen». Jubany de Solà, L & Verd, G. (2021) *L'infeliç matrimoni entre marxisme i interseccionalitat* a Catarsi Magazine, 2021/07/14. Etxeko lanak sozializatzearan alde dauden guztiak zeregin horri *benetan*

aurre egiteko beharrezkoa den prozesu iraultzailearen alde egongo lirateke, ala nahikoa lukete zerbitzu publiko *on* batzuekin? Ez ote da idealista «feministatzat» jotzea «errealtatea» eta hari «ematen diogun definizioa» kontuan hartzea, eta, era berean, errealtate horren eta definizio horien garapen historikoa ukatzea, presentismoaren eta definizio boluntarista baten oinperara makurtuta?

8 Benítez, I (2020) *Engels: del reformisme de la II internacional a les polítiques de reproducció social soviètiques. Notes sobre l'origen de la família, la propietat privada i l'Estat*. Engels.cat.

9 Hala dio *Viewpoint Magazine* argitaratutako «Feminismoa % 99ren alde» manifestuak: «Egin dezagun bat martxoaren 8an geldialdia egiteko, lantokiak eta ikasketak utzi manifestatzeko. Balia dezagun nazioarteko ekintza jardunaldi honen aukera, feminismo korporatiboarekin amaitzeko eta % 99arentzat feminismoa eraikitzeko, oinarriko feminismoa, antikapitalista, emakume langileekiko, haien familiekiko eta haien aliatuekiko elkertasunean». «Beyond Lean-In: For a Feminism of the 99 % and a Militant International Strike on March 8» *Viewpoint Magazine*, 2017ko otsailaren 3a. Artikuluaren sinatzaileak: Angela Davis, Barbara Ransby, Cinzia Arruzza, Keeanga-Yamahtta Taylor, Linda Martín Alcoff, Nancy Fraser, Rasmea Yousef Odeh eta Tithi Bhattacharya.

10 Nolabait ere, gure testuinguruan, Alderdi Popularrarekin (edo ultraeskuinarekin) obsesionatuta dauden hauteskunde kanpaina zaratsuak gogorazten ditu, diskretuak, atseginak eta besoa luzatzen diotenak PSOEr, haren konplizitatearen edo balizko aliantza baten bila.

11 Logikoa da, beraz, feminismoari aplikatutako «klase» kontzeptuaren asmo apurtzailea azkenean mugatzea edo identifikatzea borroka sindikalaren adierazpen hutsera edo klase-posizioaren esleipenetara eta mekanismoaren –kontzientzia politikoa norberak ekoizpen bitartekoekiko posiziotik *ernetzen* da– eta boluntarismoaren –«klasea prozesu bat da», askoz gehiago garatu gabe– arteko diskurtso eta klase kontzientzia baskulatzailearekin

duen harremanera. Funsgabetasun horien ondorio hipotetiko batzuk, adibidez, honako hauek lirateke: «emakumeen sindikatuak» proiektatzea, zapalkuntza edo injustizia baten bizi-esperimentazioaren (sexuagatik/ generoagatik edo beste zerbaitengatik) eta klase-kontzientziaz jabetzearen arteko lotura zuzena ezartzea, edo «klasearen» kontzeptua soilik edo gehienbat emakumeek osatutako langileen-borrokak ikusaraztera eta emakumeen langile-mugimendua birgaitzera mugatzea. Ez da harritzekoa, beraz, «% 99aren aldeko feminismoa» kontzeptua ez hartzea bereziki problematikotzat eta esparru teorikoaren eta Erreproduktzio Sozialaren Teoriako intelektual militanteen proposamen politikoaren arteko koherentzia minimizatzea, edo nazioarteko langile-klaseko emakumeen gorputzen gorputz-, sexu- eta ugalketa-merkantilizazioaren aurrerapenaren aurrean, zailtasunik gabe integratzea subjektu liberalaren eta adostasunaren nozio bat –hau da, tradizio sozialistako subjektu emantzipatzailearekiko antagonikoa–, adibide batzuk emate aldera.

12 Amorós, C & De Miguel, A (eds) (2010) *Teoria feminista: Ilustraziotik globalizaziora*. Minerva edizioak; Holstrom, Nancy (ed) (2011) *The Socialist Feminist Project. A contemporary reader in theory and politics*; Young, I. (1997). *Socialist feminism and the Limits of the Dual system theory*. Hennessy, R. i Ingraham, C. (ed.) *Materialist feminism*. Routledge. London.

13 Voglek kritikoki berrikusi du bere ekarpena. Mitchelen arabera, lau egitura bereizi daude, eta elkartzen ditugunean emakumeen egoeraren «osotasun konplexua» osatuko lukete: ekoizpena, erreproduktzioa, sozializazioa eta sexualitatea, eta ohar estrategiko eta programatikoen bidez osatzen du. Vogelen ustez, Mitchell ez du lau egitura horien azterketa eta eraldaketa historikoki sostengatzen, ekoizpen soziala emakumeengandik kanpoko esperientzia gisa aurkeztu du, eta, oro har, ateak irekitzen dizkio ahistorizismoari eta funtzionalismoari. Hala ere, Voglek aitortu egiten dio feminismo erradikalaren aurkako oinarria jartzen saiatu izanaren meritua, eta legitimatu egiten du fenomeno ekonomikoari garrantzi berezia aitortzen dion ikuspegi hori, zeinak ez duen

esan nahi egoera jakin batzuetan emakumeen egoeraren beste alderdi batzuek garrantzirik ez dutenik eta funtsezko paperik betetzen ez dutenik. Vogel, L. (2013) [1983]. *Marxism and the oppression of women. Toward a Unitary Theory*. Haymarket Books. Chicago.12 Amorós, C & De Miguel, A (eds) (2010) *Teoria feminista: Ilustraziotik globalizaziora*. Minerva edizioak; Holstrom, Nancy (ed) (2011) *The Socialist Feminist Project. A contemporary reader in theory and politics*; Young, I. (1997). *Socialist feminism and the Limits of the Dual system theory*. Hennessy, R. i Ingraham, C. (ed.) *Materialist feminism*. Routledge. London.

14 Holmstrom, Nancy (2011²⁰⁰²) *The Socialist Feminist Project. A contemporary reader in theory and politics*. Delhi: Aakar Books.

15 Ferguson, Sue (1999) *Building on the strengths of the socialist feminist tradition*. New Politics, Winter 1999, Volume 7, Number 2.

16 Arruzza, C. & Bhattacharya, T. (2020:40-41) *Social Reproduction Theory. Foundations of a Marxist Feminism*. VIII. urtea, 16. zk., 2020ko martxoa, 37-69 or. 2020ko abuztua.

17 «Sozialismo iraultzaileak, tradizionalak, langileria eta bere borroka gizarte-eraldaketaren eta sozialismoaren eraikuntzaren bihotzean jarri ditu, ez fede-ekintza huts gisa, baizik eta harreman sozialen eta boterearen azterketa sakonean oinarritutako ondorio gisa. Lehenik eta behin, ondorio hori printzipio historikoan/materialistan oinarritzen da, zeinak argitzen duen ekoizpen-harremanek osatzen dutela bizitza sozialaren erdigunea, eta haren izaera zapaltzailea azpiratze sozial eta politikoaren erro gisa definitzen du. Potentzian klase-iraultzaile bakarra langile-klasea dela dioen formulazioa ez da abstrakzio metafisiko bat, printzipio material horien garapena baizik». Meiksins Wood, E. (2013: 66-67) *Klaserik gabeko politika?* Ryr argitalpenak.

48

Testua — **Karla Pisano**
Berrojalbiz

Irudia — **Asier Nuñez**
Lander Moreno

91

**Jabeak eta
proletarioak:
etxebizitzaren
jabetza
kohesio- eta
bazterketa-
mekanismo
gisa**

«Maheutarren etxean, bigarren blokeko 16. zenbakian, inor ez zen mugitu. Iluntasun gordinak irensten zuen lehen solairuko gela bakarra, han behar zuten izakien loa larrituko balu bezala; pilatuta zeuden denak, ahoa zabalik, nekeak lehertuta. Kanpoan sekulako hotza eginagatik, arraro samarra zen aire hark berotasun bizia zuen berekin, giza abereen usaina duten gelen hats bero hori»

— (Germinal. Zola, 2017:24)





Emile Zolak *Germinal* (1885) eleberri ezaguna argitaratu zuen, Engelsek *Etxebizitzaren arazoari ekarpena* hiru zatitan idatzi eta hamarkada batera (Engels, 2006). Xehetasun handiz, 1860ko Frantziako langile-klasea aurkezten digu eleberrigileak; bere bizi- eta lan-baldintzak, ohiturak eta pixkanakako politizazio maila. «Giza abereak» ziren, euren aurreko bizimodutik aldentzera behartuak, eta kapitala eskulana eskatzen ari zen produkzio-zentroetan kokatuak.

Engelsek etxebizitzaren gaia jorratu zuen Zolaren eleberri sozialak kontatzen dizkigun baldintza horien analisitik, burgesiaren irtenbide erreformistak auzitan jartzeko helburuz, baita Proudhoenen jarraitzaile anarkisten burgesia txikiarekin lotutako posizioak auzitan jartzeko ere. Bere ekarpen nagusia laburbiltzeko erraza da, baina ondorio handiak ditu: etxebizitzaren arazoa ez da nolabaiteko istripu bat, ekoizpen kapitalistaren berezko arazo bat baizik. Funtsean, esplotazio kapitalistaren dinamikak –soldataren debaluazioaren bitartez– etxebizitza eskasia erreproduzitzen du eten-gabe. Engelsek etxebizitzaren arazoa aztertu zuen milioika pertsona hiriguneetara eramaten zituen prozesu historikoaren ikuspegitik, eta etxebizitzaren eskasia –eta horrek eragindako aglomerazioak eta garestitzea– dinamika demografiko sakon baten eskutik zihoan. Dena den, haren oharra har genitzake gaur egun, eta etxebizitzaren egungo arazoaren analisiari aplikatu.

Etxebizitza, bizirauteko oinarritzko ondasun bat izateaz gain –eta, beraz, langile-klasearen kontsumo-funtsaren zati bat–, aktibo mamitsua da errentak lortzeko. Hiri-errentaren osaera konplexua da, eta testu honen helbururako, plusirabaziek osatzen dutela esatea aski izango da; hau da, gainbalioaren ekoizpenaren mende dago, lurrari aplikatutako kapitalaren mende, edo, beste era batera esanda, espazioaren balorizazio-prozesuaren mende (Harvey, 2007). Etxe batek balio handiagoa hartzen du hara hurbilduko zaituen garraio eroso bat baldin badago, are gehiago haren atzean lorategidun parke bat eraikitzen bada, eta ez dezagun esan ondoan Club Metropolitanek spa eta gimnasio bat ireki berri badituzte. Metatutako lan horrek guztiak eragina du errentan, eta, ondorioz, baita azken prezioan ere. Balorizazio-prozesu horiek –edo desbalorizazio-prozesuak, ingurune degradatuen kasuan– finantza-kapitalaren eta Estatu Burgesaren lan koordinatua behar dute. Lehenengoak, aurreratu beharreko kapital-masa handiak eskuragarri jartzen ditu, eta, bigarrenak, lurzorua eta hi-

ri-espazioaren erabilera arautzen du, balorizazio-beharren arabera. Azken batean, etxebizitza baten jabetza pribatuak errenten zati bat bereganatzeko aukera ematen dio jabeari, higiezin salduz edo alokatuz. Alokairuaren kasuan, jabeek –aurreratutako kapitalaren berehalako ordainketari eta horrekin lotutako irabaziari uko egiteagatik– interesa deritzon prezio handiagoa jasotzen dute, konpentsazio gisa (Astarita, 2010). Azkenik, monopolizatu daitekeen merkantzia bat denez, bere prezioa izugarri igo daiteke, eta errentistek egundoko plusirabaziak lor ditzakete, burges industrial askok «bidegabetzat» joko lituzketenak.

Etxebizitza, ororen gainetik, finantza-balio bat da, hainbestearino, non Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) kalkulatzeko ere ez baita kontuan hartzen. Lehen mailako ondasun bat izan beharrean, zeinaren prezio-igoerak soldataren debaluazioa ekarriko lukeen, ekonomia burgesak ondare-aberastasunaren gorakadaren adierazpentzat hartzen du (Del Rosal, 2022). Ondorioz, higiezin burbuilak sortzen direnean, inflazioa eta horrek soldatetan duen eragina alde batera uzten dira, aberastasunaren hazkundea ospatzeko. Egia da alokairu-kontratuen prezioa KPIaren arabera arautzen duen klausula bat dagoela, baina, egiari zor, jabearen arbitrariorotasuna da nagusi.

Orain arte esandakoak azaltzen du, neurri batean, Engelsek aipatzen zuen etxebizitza eskasia: kapitalistek soldata murrizteko egiten duten prezioak, prezioen goranzko joerarekin batera, langile-klaseak etxebizitza bat eskuratzeko aukera elorri-alanbrez zeharkatutako bide bihurtzen dute. Hala ere, Engelsek etxebizitzaren eskasia oso nabarmena zen testuinguru batetik hitz egiten du, hau da, ez zen behar adina etxebizitza egiten proletario berrien eskarirako, ez zelako batere negozio errentagarria. Egungo erronka etxebizitzaren arazoak oparotasun materialeko testuinguru batean nola dirauen azaltzean datza, hainbat hamarkadaz, langile-klaseko zenbait geruzatan jabetza orokortu ondoren. Artikulu honetan prozesu historiko hori azaltzea izango da nire asmoa, Espainiako Estatuan zentratuz eta etxebizitzaren jabetzaren hiru dimentsio nagusiak paraleloki aztertuz: bizirauteko bitarteko gisa, errentak lortzeko aktibo gisa eta kultura-tresna indartsu gisa. Frankismotik abiatuta, higiezin azken burbuila sortu eta pitzatu ondorengo krisialdira arteko ibilbidea egingo dut. Jarraian, labur-labur aztertuko ditut «jabeen gizarte» bat ezartzearen eta horren ondoriozko pitzaduraren ondorio kulturalak, eta, azkenik, egungo baldintzen azterketan jarriko dut arreta.


Egungo erronka etxebizitzaren arazoak oparotasun materialeko testuinguru batean nola dirauen azaltzean datza, hainbat hamarkadaz, langile-klaseko zenbait geruzatan jabetza orokortu ondoren

URRITASUNETIK UGARITASUNERA

Historia de una escalera (1949) gerraosteko antzerkiaren adibide klasiko bat da. Antonio Buero Vallejok, pertsonaien koru baten bidez, eraikin berean bildutako hiru belaunaldiren zorigaiztoko bizimodua kontatzen digu. Istorioak aldatu egiten dira, pertsonaiak etorri eta joan egiten dira, baina eskailerak iraun egiten du. Denboran zehar geldirik egon den eskailera hori diktaduraren sinbolo bat da; sozialki hobetzeko ezintasunarena, etsipenarena eta pobrezia orokortuarena. Uste dut 60ko hamarkadako eleberri esperimentalaren obra horren kontraste garbitzat jo dezakegula. Garapen-aldi batean, Miguel Delibesek *Cinco horas con Mario* (1966) idatzi zuen, familia burgeseko emakume baten eztabaida existentziala jorratzen duen eleberria. Besteak beste, senarrari aurpegiratzen dio ez duela nahikoa egin etxe handiago bat eta Seat 600 bat erosteko. Delibesek aukera asko dauden mundu baten aurrean klase ertain berri batek dituen asmoei eta konplexuei buruz hitz egiten digu. Pobrezia jada ez da saihestu ezin daitekeen patu hori, alferrik galdutako aukera bat baizik; zilarrezko erretiluan eskaintzen zaiona hartzeko besoa luzatzen ez duen inozo baten ezintasuna. Hori da urritasunetik ugaritasunera igarotzeak sortzen duen isletako bat.

XIX. mendearen zati handi batean, etxebizitzaren eraikuntza garestia eta gogaikarria zen. Gutxi batzuk baino ez ziren zeregin horretara mugatzen, eta gehienetan beren irabazien zati bat inbertitzen zuten burgesak izaten ziren, higiezin mundutik zetozenak. Finantzen garapenarekin, higiezin negozioa gero eta irabazi handiagoko negozio bihurtu zen, diru kopuru handiak mobiliza zitezkeelako. Etxebizitzaren ekoizpen gero eta handiagoari erreferentzia eginez, bai eta jabetza horiek denbora errekorrean balorizatzen dituzten sustatzaile partikular batzuen eskuetan kontzentratzeari ere, Marxek esango luke «gaur egun, eraikuntza-enpresa bat ere ezin dela bizi espekulazioan aritu gabe, eta, gainera, eskala handian» (Marx, 2017). Dena dela, etxebizi-

tzen ekoizpen-kostuek behera egin behar izan zuten, Estatuak hiri-espazioaren arautzaile gisa zuen funtzioa sendotu egin behar izan zuen eta finantza-kapitala gehiago garatu behar izan zen, sustatzaile partikularrek langileen etxebizitzaren eraikuntzan negozio on bat aurkitu aurretik.



Espainiaren kasuan, gerraosteko eta autarkia-ko urte luzeek inspirazio faxista zuen erregimena nazioarteko isolamendura eraman zuten. Produktuen garestitzea eta hornidura falta ziren egunerokoa, eta kontrabandoa ez zen ur tanta bat baino egarri zen harentzat. 1959tik aurrera, Erregimenaren Egonkortze Planekin, garapen ekonomikoaren garai berri bat hasi zen, masen kontsumoa ekarri zuena. «Espainiako miraria» zeritzona soldata baxuetan oinarritzen zen, zeinak industria garatzea –baita eraikuntzaren sektorea ere– eta turismoa bultzatzea ahalbidetu zuen. Azpiegitura ugari eraikitza, lurzorua errentek gora egin zuten, eta turismoa eta beste inbertsio batzuetatik etorritako atzerriko dibisei esker, erregimenak urte batzuetako oparotasuna bermatu ahal izan zuen. 60ko hamarkadan, Estatuak babestutako etxebizitzaren eraikuntza bultzatu zuen, kredituen eta diru-laguntzen bidez. Etxebizitza Planaren helburu asko bete ez baziren ere, eta etxebizitza babestu asko inoiz eraiki ez baziren ere, plan horren propaganda-balioa ukazina izan zen. 70eko hamarkadatik aurrera, etxebizitzaren eraikuntza ekimen pribatuetatik etorri zen neurri handiagoan, dinamika demografiko berriak asebetetzen zituztelako: landa-eremuko exodoaren ondoriozko eskaria areagotu egin zen, gune turistikoetan bigarren etxebizitzak gero eta gehiago erosi ziren, eta abar.

Etxebizitzarekin lotutako arazoak, ordea, ez ziren hor amaitu, ezta gutxiago ere. Txabolismoa, bizitokietako pilaketak eta etxebizitzaren kalitate txarra izan ziren debaluatutako lan-indarraren muturreko esplotazioan oinarritutako garapen ekonomikoa definitzeko faktoreak. Hala ere, langileklasearen zati handi batek etxebizitza bat jabetzan hartu izana, ia zorpetu beharrik gabe, ez da hutsala. Hori posible izan zen ekoizpen-kostu txikiei esker, baita Estatuaren esku-hartzeari eta oraindik txikia zen inflazioari esker ere.

Garapen ekonomikoa ez zen denboran mantendu, eta jakina denez, 1973ko krisiak eragin berantiarra baina sakona izan zuen Espainiako Estatuan. Produktzio-sistema ez oso lehiakor baten gabeziei –politika protekzionistetara ohituta zegoena– erakundearen krisia gehitu zitzaion, baita langileen mugimenduen gorakada ere. Orduan, inflazioa sartu zen jokoan; 1977an % 24,5ekoa izatera iritsi zen eta momentuko etsai nagusia bihurtu zen. Patronalaren erantzuna prezioak igotzea izan zen, «soldaten gobernaezintasunari» erantzuteko asmoz (Lopez eta Rodriguez, 2010). Moncloako Itun ospetsuetan (1977), alderdi burges guztiek, enpresaburuaren elkarrekin eta gehiengo sindikalaren ordezkartitza-

rekin batera, «behar zen guztia egitea» (sic.) adostu zuten inflazioaren gaineko kontrola berreskuratzeko. Horrek, finean, soldata-igoerak aurreikusitako inflazioaren mende egon beharko lirakeela esan nahi zuen. Inflazioaz gain, indarrez agertu zen soldata kontrolatzeko beste mekanismoa: langabezia. Industria birmoldatzeko planek –horien artean PSOEren Birmoldaketa eta Berrindustrializazio Plana nabarmentzen da (1984)– Espainiako produktzio-ehuna nazioarteko eskakizunetara egokitu zuten, eta, espezializazioaren eta modernizazio erlatiboaren ondorioz, erreserbako industria-armada nabarmen handitu zen. Langabezia masiboa izan zen: % 20ra iritsi zen, gazteak kolpatuz, bereziki (Marin, 2006). Hamarkada berri horrek gizartearen polarizazioa, langile-klaseko zenbait geruzaren proletarizazioa eta hirien degradazioa ekarri zituen. Langileen auzoen gainbeheraren garaia da, itxaropenik ezarena eta heroinarena. Baina gizartearen zati batentzat lana izateak amets bat zirudien bitartean, beste batentzat egoera horrek aukera sorta ederra zekarren: demokrazia burges berriak funtzionario saldo berri bat behar zuen, klase ertainaren gozoa dastatuko zuena. Kontrasteen hamarkada da aipatu berri dugun hori, azken batean.

TXANPON BERAREN BI ALDEAK: JABETZAREN SOZIALIZAZIOA ETA SOLDATAREN DEBALUAZIOA

Ez dago kontraste horien testigantza hoberik *kinki* zinemako zintak baino. Fernando Leon de Aranoak zuzendutako *Barrio* (1994) filmak etxebizitza sozialen bloke handiz jositako auzo batean bizi diren hiru gazteren istorioa kontatzen du; adreilu iluneko mol handiak, 70eko hamarkadan eraikiak seguruenik. Filma hiru gazteak bidaia-agentzia baten erakuslehoari begira daudela hasten da. Abuztua da, eta jende guztia kanpoan dago, baina haien zentsura ez dago. Erakuslehoari idatzitako irakurtzen ari dira: «Marokora 48.000 pezetagatik», «Baraderora 70.000 pezetagatik». «Belaunaldi-jauzi» batean kokatzen den belaunaldia dira, zeinak baikortasun garapenezalearen eta 2000. urte inguruko burbuilaren artean dauden: gazte proletarizatuak, hiriko paisaia degradatu batean noraezean dabilzanak eta koloreztatutako zuri-beltz baterantzko prozesuan daude. 2003an estreinatutako *Aquí no hay quien viva* telesailak umorez laburbiltzen du, behar bada, eraldaketa hori, gris koloreko paisaia horren pigmentazio artifizial hori. Zehazki, pobretutako langileklasearen zati bat «jabeen gizartean» sartzeaz ari

naiz, eta, beraz, jabetzaren orokortzean eta soldataren devaluazioan oinarrituta, itun soziala finkatzeaz. Telesailean, ia pertsonaia guztiak etxebizitza baten edo gehiagoren jabeak dira. Maila sozioekonomiko altukoak ez izan arren, *Barrioko* blokeetako biztanleak ere ez dira. Batzuk irakasleak dira, beste batzuk bulegariak, beste batzuek aldi baterako lan ugari dituzte, eta abar. Laburbilduz, pertsonaiek duten jabeen estatus hori ez dator bat haien bizikaltate eskasarekin. Eskaileraren historia horrek jabeen gizarte berria islatzen du, eta Buero Vallejoen obran ez bezala, faktore nagusia aldaketa da: beren posizioa oso hauskorra da, eta, gizartean une batetik bestera egiten da gora nahiz behera.

Estatuaren funtzioa nabarmen aldatu zen. Neoliberalismoak Esku Ikusezinaren ideia alboratu eta zuzeneko esku-hartzea onartu zuen, Margaret Thatcherrekin lehenik, eta Reaganen administraziopean gero. Espainiaren kasuan, behin soldatak kontrolpean zeudenean, higiezinaren eta finantzen estrategiaren lehen entseguak hasi zen (1985-1993) (Lopez eta Rodríguez, 2010), eta bi zutabe nagusi izan zituen: finantzarizazioa eta tertziarizazioa. Espainia Europako Ekonomia Erkidegoan sartu zenean, atzerriko inbertsioak gora egin zuen, eta bereziki higiezinaren merkatuan zentratu zen. Finantza- eta higiezin-errenta berriek familien aurrezteko gaitasuna handitu zuten, zeina zorpetze pribatuaren gorakada izan zen, egiazki. Bestalde, alferrikako fabrika-ehuna eta horren ondoriozko hiri-paisaia birmoldatu ziren –neurri batean, Europako laguntzei esker–, eta hiri-marka gisa merkaturatu ziren, hau da, nazioarteko merkatuan aurkeztzen ziren erakargarritasun turistikoko hiri gisa. Prozesu horrek guztiak nabarmen handitu zuen jabeen ehunekoa –% 73ra iritsi zen 1981ean–, baina ez gizarte- eta espazio-kontrasteen hazkunderik ekarri gabe: alde batetik, zerbitzuetako proletariotza berri bat zegoen, gutxieneko soldatekin eta kualifikazio gutxi eta oso prekarioekin; beste aldetik, klase ertainaren kontsumoa nabarmen handitu zen, zorpetzean oinarritu bazen ere, ordura arte ez baitzuen kalte handirik egin, eta gehienek jabetzak kapitalizatzea lortu zuten.

1995ean, *impasse* momentu labur baten ondoren, higiezinaren ziklo berri bat hasi zen, «Espainiako bigarren miraria» deiturikoa iragarritz. Urteko Barne Produktu Gordina (BPG) % 4ra arte igo zen, langabezia-tasak jaitsi egin ziren eta inflazioa onuragarriak ziren ehunekoetan mantendu zen. Metro koadroaren prezioa 2000. urtean hasi zen igotzen, eta etengabe igo zen 2006. urtera arte. Izan ere, aldi horretako urte bakoitzean, etxebizitza gehiago

eraiki ziren Espainiako Estatuan Frantzia, Alemania eta Italia baino –hirurak elkarrekin hartuta kontuan–, eta kredituetan ematen ziren 100 eurotik 55 kanpotik zetozen (Niño-Becerra: 2020). Azken 70 urteetan Espainiako Estatuan gertatutako *boom* ekonomiko guztiak, modu batera edo bestera, etxebizitzaren eraikuntzarekin lotuta daude, turismoarekin estuki lotutako sektorea baita. Eta ez da kasualitatea, sektorean lehiatzeko abantaila ugari baitzituen: baliabide naturalen eskuragarritasuna, potentzial turistikoa duten enklabe ugari, erraztasun fiskal eta politikoak, soldata baxuak, erreserbako armada handia, eta abar.

Urte horietako hazkundera, berriz ere, finantzarizazioan oinarrituta egon zen, eta horren ondorio zuzena zorpetze pribatuaren orokortzea izan zen. Europatik diru merke asko iristen zen adreiluaren sukarra asetzera, eta prezioen burbuila gero eta handiagoa egin zen. Gainera, inflazioa –arazo kronikoa– berehala agertu zen. Hala ere, jabeen kopuruak gora egin zuen, eta 2007an % 80,1era iritsi zen^[1]. Familiek kontsumorako sarbide handiagoa izan zuten kredituen merkatzeari eta beren jabetzetatik lor zezaketen errentagarritasunari esker, zeina prezioen igoeraren ondorio zuzena zen; «etxebizitzaren prezioa ez da inoiz jaisten» zioten. Baina, egiari zor, kontsumitzeko aukera handiago hori soldaten devaluazio geldiezinaren nolabaiteko ilusiozko konpentsazioa baino ez zen izan. Moncloako Itunen eta soldatei eusteko eta moneta-murrizketarako neurrien ondoren, soldata-polarizazio prozesu bat hasi zen, eta ez zuen ia aurkakotasunik aurkitu bat ere indarrik gabe zegoen langile-mugimendu batean. Metatze eredu horrek zeraman joerarekin jarraitu zuen: produktibitatearen igoera nuluak eta kapitalaren enplegu baxuak ezaugarritzen zuten, lan-indarraren erabilera intentsiboarekin kontrastean. Azken batean, zerbitzuekin, kontsumoaren hazkundera eta ondare-burbuilarekin lotutako eredu ekonomikoa zen. «Espainia ondo doa» zioten askok milurtekoaren hasieran; jendea gero eta aberatsagoa zen, eta langabezia behera egin zuen, baina hori, zor pribatuarekin finantzatzen ziren hainbat jardueratan lanean ari zen biztanleria aktiboa handitu zelako gertatu zen.

2007ko udan krisia piztu zen. BPGaren gaineko zor pribatua 1996ko % 65etik 2007ko % 207ra igo zen (Niño-Becerra, 2020). Etxebizitzaren prezioa jaitsi egin zen, inbertsioak ere bai, eta ondorioz, familien kontsumoa murriztu egin zen. Ordainketa atzerapenak, ez-ordaintzeak eta hipoteka-gauzatzak areagotu ziren. Zorpetu ziren familiek ezin

izan zioten egoerari eutsi, Europako Banku Zentralak (EBZ) interes-tasak igo baitzituen –inflazioari aurre egin nahian–, ezin baitzituzten euren jabetzak errentagarri bihurtu –etxebizitzaren prezioaren jaitsieragatik– ; maileguak blokeatuta gelditu ziren eta langabeziak nabarmen egin zuen gora. Haien itzulketa-gaitasun errealetatik oso urrun zeuden kredituekin zorpetu ziren; orduan ikusi genuen lehenengoz proletarizazio-prozesu hura, 70eko hamarkadaz geroztik jada existitzen zen arren. Finantzarizazioak luzatutako kontsumoak ezkutatu zuena atera zen argitara: soldata erreal oso baxuak, lan-prekarietatea eta desegite betearen zeuden zeharkako soldatak –errentekin eta zerbitzuekin lotuak– (Rodríguez, 2022).

DESJABETZEAREN KODE KULTURALEN GENESIA

Genesian, Munduaren Sorrera izan zen lehenengoa, gero, Gizakiaren Erorketa eta, ondoren, Uholde Handia. Esan bezala, jabetza ez da errentak lortzeko aktibo bat bakarrik, ezta erreproduktzioarako oinarritzakoa den ondasun bat eskuratzeko bide soil bat ere. Etxebizitzaren jabetza kultura-tresna sendo bat ere bada. Lehenik eta behin, etxebizitza baten ordaintzeak soldatapeko lanera lotzen gaitu, eta hari zor diogun diziiplina lanpostutik haragokoa bihurtzen du. Bigarrenik, jabetza subjektibazio modu indartsu bat da, jarrera kontserbadoreak sortzen baititu.

Pentsakera patrimonialista, batez ere, diktadura frankistan sortu zen. «Jabeen Espainia nahi dugu, ez proletarioena», zioen Jose Luis Arresek, etxebizitzako lehen ministroak. Honela laburbildu zuen

erregimenaren gizarteratze-proiektu nagusia: jabetzak leialtasuna bermatuko zukeen, bai Estatuari, bai soldatapeko erregimenari, eta, gainera, jabeek joera txikiagoa izango zuketena abentura iraultzaileetan murgiltzeko. Lehen hamarkada horietan, helburua etxebizitza ekoiztea zen, eskaria handia baitzen. 80ko hamarkadatik aurrera, ordea, kontua ez zen soilik bizitoki premia asetzea, era guztietako fantasiei bide ematen zieten kontsumoak eskaintzea baizik. 90eko hamarkadako publizitateak ez zuen etxe soil bat eskaintzen, «zure ametsetako etxea» baizik. Higiezinaren burbuilaren garapenean erabakigarria izan zen beste faktore kultural bat jabetza balio segurutzat hartzea izan zen. Horri dago-kionez, higiezinaren merkatua izendatzeko ingelesezko terminoak –*Real Estate*– familia asko zorpetzera eramane zituen pentsatzeko moduaren inguruko pistaren bat ematen digu: *Estate* [izaera, jabetza] eta *Real* [benetakoa, existitzen dena, ukigarria]. Jabetza hori mugiezina, iraunkorra eta bakarra da, eta, beraz, balio-gordailu segurutzat hartzen da.

Esan bezala, jabetza gizarteratzeko mekanismo bat izan zen, bereziki garrantzitsua lanak pisua galtzen zuen testuinguru batean. Izan ere, gizarte industrial tradizionaletan, parte-hartze sozial eta politikorako modua lanaren bidez izan ohi zen. Lanak, formalki, herritar bat eskubideak dituen subjektu bihurtzen zuen. Hori izan zen XIX. mendeko iraultza liberalen ondoren estatu burgesa justifikatzeko eta klase-desberdintasunak ezkutatzeke erabili zen formula. Desjabetutako proletarioa, gutxienez, bere lan-indarraren jabe zen, eta, birtualki, jabeen komunitate bateko herritarra. XX. mendearen bigarren erdian –eta, bereziki, 80ko hamarkadaren

«Jabeen Espainia nahi dugu, ez proletarioena», zioen Jose Luis Arresek, etxebizitzako lehen ministroak. Honela laburbildu zuen erregimenaren gizarteratze-proiektu nagusia: jabetzak leialtasuna bermatuko zukeen, bai Estatuari, bai soldatapeko erregimenari, eta, gainera, jabeek joera txikiagoa izango zuketena abentura iraultzaileetan murgiltzeko

Proletalgoa, *de facto*, Itun Sozialetik at geratu zen; legez kanpoko subjektu bat izango da eta lerro gaindiezin batek bananduko du etxebizitza baten jabetzatik. Klase ertainarentzat, ordea, jabetzaren eta kredituaren bidezko kontsumorako sarbidea berriro ere gizarteratzeko balio izan zuten bi mekanismo izan ziren, soldata debaluatzen ari zen testuinguru batean

amaieran-, lan duin baten ameskeria pitzatu egin zen, eta, langile-klasearen zati handi batentzat, lana jada ez zen bere balio definitzailea. Proletalgoa, *de facto*, Itun Sozialetik at geratu zen; legez kanpoko subjektu bat izango da eta lerro gaindiezin batek bananduko du etxebizitza baten jabetzatik. Klase ertainarentzat, ordea, jabetzaren eta kredituaren bidezko kontsumorako sarbidea berriro ere gizarteratzeko balio izan zuten bi mekanismo izan ziren, soldata debaluatzen ari zen testuinguru batean. Horrela, etxebizitzaren jabetza klase ertainaren oinarri ideologiko eta materiala izan zen, are gehiago Espainiako Estatuaren kasuan. Jabetzaren sozializazio hori, ostera, ez zen inoiz unibertsala izan, eta ez zen sekula bermatu denentzako kalitatezko etxebizitzarik. Berez, inoiz ez zen izan hori helburua, langile-klaseko zenbait geruzatan eragin zuen jabetzaren sozializazioaren erabilera politikoak –*status* gisa– onura nabarmenak ekarri baitzizkion Kapitalari. Bitxia bada ere, *mileurista* terminoa 2005ean sortu zen, higiezinaren burbuilaren gorakada betean, eta horrek erakusten digu zer nolako kontrasteak ikus zitezkeen: kontsumorako sarbide handiagoa zegoen aldi berean, soldaten balioa gutxitzen ari zen.

Horregatik, Gizakiaren Erorketa berehala iritsi zen. Jainkoarekiko obedientzia inozo batetik, desobedientzia-egoera batera igaro zen. Izan ere, higiezinaren burbuilak eztanda egin ondoren, klase ertainaren bizimodu neurrigabea kritikatzeko zuten ahotsak bata besteari atzetik etorri ziren. «Gu-





92





re aukeren gainetik bizi gara», errepikatzen zuten. Beste termino paradigmatico –eta misogino– bat sortu zen: *visillera*. Aipatu berri duguna familia-ko emakumeari erreferentzia egiteko erabiltzen zen, zeinaren kezka bakarra bere etxe distiratsuko errezelak jartzea baitzen, hura nola lortu zuen kontuan hartu gabe. Antzeko pertsonaia bat agertzen da Rafael Chirbesen *Crematorio* eleberrian. Chirbesek 2000ko hamarkadako familia baten istorioa jorratzen du, eta familia aurkezten digu jabetza-baloreak, higiezinaren espekulazioa eta negozio zikinak egikaritzeko modu gisa. Baina, zalantzarik gabe, gaitzespen horien isla argienetako bat Deutsche Bankek 2007an argitaratutako etxebizitza-txostenean topa dezakegu, Espainiako kasuari buruzko zatiaren izenburua *Living la vida loca* baitzen.

Azken batean, gehiegikeriei egindako kritika bat zen. Kontsumoaren gehiegikeriei eta familien zorpetzeari, batetik, eta garapen ekonomiko eze-gonkorrari lotutakoei, bestetik. Sozialdemokrazia laster alden du zen *mea culpa* horretatik, eta arazoaren iturria hazkunde ekonomikoaren oinarrietan zegoela adierazten hasi zen. Kritiken jomugan jarri zuten jabe handiekin eta funts putreak zeritzenezkin lotutako espekulazioa, baita Etxebizitza ministroen ustelkeria kasuak edo turismoan oinarritutako hazkunde eze-gonkorra ere. Halaber, kritika horren helburua jabeen gizartea lehengoratzeko zen, oinarri sendoagoak ezarri. Beraz, jarrera kontserbadore batez ari gara, kapitalismoaren «gehiégikeriak» moralki arbuiatzen dituen, eta, aldi berean, erakunde burgesak irmo defendatzen dituen.

Eta desobedientziaren ondoren, Uholde Handia dator. Lur guztia urpean uztea desobedientziaren ondorio zuzena da, baina, batez ere, haren ondorio saihetsezina da. Metaketa kapitalistaren krisia

ezinbesteko proletarizazio-prozesu gisa aurkezten zaigu. Hondamendi horretan, itsasontzia estatutua burgesa da; hura da erreproduktzio sozialaren berme bakarra, ea konplexurik gabe guztiok salba gaitzkeelako ideia alde batera uzten du. Batzuek irauin egingo dute, eta kontsolamendu hori beste ezer baino gehiago da. Eta kanpoan geratzen diren gaixoen zatia –beren gehiegikeria moralgabeen errudun diren horientzat– beti egongo da irauteko modu bat; haien erreduktzioa austeritatean dago, bertute bihurtzen den austeritate batean: batu zaitez *coliving*-era, egin gastu-baraualdiak, gurasoen etxetik alde egin ezin baduzu, bizi adineko pertsonekin zure udalaren emantzipazio plan berriari esker.

EGUNGO EGOERA: MISERIAZKO ETXEBIZITZA-SISTEMA

Kapital-metaketaaren krisiaren aurrean, burgesiak klase moduan har dezakeen jarrera bakarra hartzen du: bere irabaziak defendatzea. Horretarako, kapital aldakorrari dagokion zatia murrizten du pixkanaka, soldatak debalutuz, soberako lan-indarra kanporatuz eta langile-klasearen aurrezkiak arpilatuz. Estatu burgesaren eginkizuna prozesu hori ahalbideatzea da, eta ziurtatzea ez dela oztopo politikorik egongo. Hori sistema parlamentarioaren bidez egiten du, burgesiaren barruan dauden desadostasunak dinamizatuz eta edozein alternatiba politikoa eragotziz. Zehazki, 2008ko krisiaren aurrean Europako estatuak hartutako neurri nagusiak gastu publikoaren hazkundea eta lehendik eza-gunak ziren keynesiar motako beste neurri batzuk izan ziren. 2012tik aurrera, diru kopuru handiak bideratu ziren EBZren bidez –kontuak bere onera itzul zitezen–, baina aldaketa nagusiak iristeke dauke: lehenik eta behin, zor publikoa eta pribatua ezin

**Jabetza-erregimena hedatuen dagoen
eredua izan arren, EAEn 100.00 pertsona
inguruk etxe bat erosi nahi lukete,
eta horietatik 80.000 inguruk ez dute
horretarako nahikoa baliabiderik. Datu
horien arabera, proletarizazio-prozesua
ikaragarri bizkorra da, belaunaldi
bakarraren joanean ikus daitekeena**

direla ordaindu onartzea; bigarrenik, soldatak de-baluatzeko beharrezko neurri guztiak hartzea; eta, hirugarrenik, babes sozialeko eredia berrikustea. 2007ko irailean, orduan Frantziako Errepublikako presidente zenak, Nicolas Zarcosy-k, aurreratu zuen «funtzio publikoa birfundatzea» beharrezkoa zela. Krisiaren kudeaketa burgesak etxebizitzaren arazoan duen isla argia da: etxebizitzaren arazoaren okerragotzea alderdi guztietan. Etxegabetzeak, ez ordaintzeak, etxerik gabeko pertsonen kopurua handitzea, pobrezia energetikoa handitzea, bizi-baldintzen okerragotze orokorra eta abar. Okerragotze hori Euskal Herrian ere ikus daiteke, nahiz eta familia-errentak handiagoak izan eta pisuen jabetza etxebizitza guztien % 88koa izan^[2]. Euskal Autonomia Erkidegoko prezioen goranzko joera ikus dezakegu, etxebizitza libre berriek ia % 17 egin baitute gora azken bost urteetan. Babestutako etxebizitzei dagokienez, metro koadroaren prezioak etengabe egin du gora azken urteetan, eta hazkundea % 20koa izan zen 2010 eta 2020 artean^[3]. Prezioen igoera eta diru-sarrerren murrizketa direla eta, etxebizitza erosteko beharra duten pertsonen % 80k baino gehiagok hipoteka-kreditu baten beharra lukete. Jabetza-erregimena hedatuen dagoen eredia izan arren, EAEn 100.00 pertsona inguruk etxe bat erosi nahi lukete, eta horietatik 80.000 inguruk ez dute horretarako nahikoa baliabiderik^[2]. Datu horien arabera, proletarizazio-prozesua ikaragarri bizkorra da, belaunaldi bakarraren joanean ikus daitekeena.

2013 eta 2021 urteen artean 12.526 kaleratze egin ziren guztira, bide judizialek gauzatu zirenak bakarrik zenbatuta. Azken urte honetan, etxegabetzeen kopuruak ia % 25 egin du gora Hego Euskal Herrian, 2020aren aldean. 2000. urteaz geroztik, EAEn alokairuetan, hipoteketan, kredituetan edo ordainagiritan atzerapenak edo ez-ordaintzeak izan dituzten pertsonen kopuruak gora egin du etengabe, eta 2018an goia jo zuen, 140.000 pertsona baino gehiago baitzeuden egoera horretan^[4]. Gainera, EAEko FOESSA eta Caritas erakundeek 2022ko txostenaren arabera, pertsonen % 8,5 egoikia ez den etxebizitza batean bizi dira, 187.000 lagun inguru. Azkenik, gazteen langabezia-tasa handitzen ari denez, Hego Euskal Herrian emantzipatzeko batez besteko adina 30,2 urtekoa da, eta Europako altuenetakoa da hori^[2].

Datu horiek lagungarriak dira langile-klasean erosen dauden geruzak pobretzen ari den proletarizazio-prozesuaren dimentsioak jabetzeko, eta are gehiago gogortzen dituzte proletarioen bizi-baldintzak. Agian prozesu horren aurpegiak agerikoena,

hain zuzen ere, 2008tik aurrera gertatutako hipoteka-exekuzio saldoa izan zen. Dena den, bizi-baldintzen okerragotzea hainbat hamarkadatan egon zen hor, eta benetan, jabeen gizartea salbuespena zen: Buero Vallejoko bizilagunak; Marioren familia apala, bere buruaz lotsatuta zegoena; auzoetako etorkizunik gabeko neska-mutikoak; telebista-ko-saio ezagun hartan hainbat lan zituen Belen... Guztiak zeuden proletarizazio prozesuaren menpe, eta haren ondorioak jasan zituzten, modu batean edo bestean.

Etxebizitzaren jabetza klase ertaina gizartean integratzeko bitarteko izan da orain arte, baina orain kolokan jartzen ari da hori –ez baita ez posible, ezta beharrezkoa ere–, are gehiago gizarte burgesa zelatzaren duen oposizio politikorik ez dagoen krisi kapitalistaren testuinguruan. Prozesu hori, ordea, motela da, eta baditu bere kontraesanak. Ikusten dugu, adibidez, gaur egungo koalizio-gobernuak jabe txikien interesak defendatzen jarraitzen duela, lobby-ek eraginda eta helburu elektoralistek baldintzatuta. Hala eta guztiz ere, funtsean, higiezin merkatuan kapitalen kontzentrazioa bultzatuko dute, eta funts putreei alfonbra gorria jarritz, errentari txikien desagertzea ahalbidetuko dute. Horrela, Itun Sozial zaharreko –etxebizitzaren jabetza eta, oro har, kontsumorako sarbide handiagoko oinarritua– alderdiek zilegitasuna galduko dute klase ertain erasaren artean, eta politika erreakzioarioagoetan hartuko dute babes.

Horrek guztiak eskatzen du Estatuak bere babes sozialeko eredia berrikus dezala eta egoera berrietara egokitu dezala, egungoak ezaugarri baititu langabeziaren gorakada, bizitzaren garestitzea nahiz errenta eta zerbitzuetara bideratutako baliabideen murrizte nabarmena. Testuinguru horretan, Estatuak etxebizitzaren arloan egiten dituen esku-hartzeak beste miseria-erakundearen etxebizitza-sistema bat ezartzera bideratuta daude. Finean, errenta, zerbitzu eta neurri juridiko multzo bat izango da, langile-klaseko zenbait geruzaren kontsumorako sarbidea bermatzeko, eta, batez ere, gizarteko haserrearen apaltzeko. Sistema hori deskribatzeko, bi adibide erabiliko ditut: etxegabetzeen luzatzea eta Eusko Jaurlaritzak gazteen alokairurako ematen dituen laguntzak. Alde batetik, luzatze horrek moteldu egin du etxegabetzeen uholdearen eragina, konfinamenduaren ondoren sor zitekeena. Neurri horrek ez ditu etxegabetzeak bertan behera utzi, denboran luzatu baizik. Askok kritikatu dute aldi baterakoa delako –sei hilabeteko denbora-tartean berriro baita–, baina litekeena da salbuespena izateari uztea eta ohiko araudiaren parte izatera pasatzea. Bestal-

Testuinguru horretan, Estatuak etxebizitzaren arloan egiten dituen eskuhartzeak beste miseriako etxebizitzasistema bat ezartzera bideratuta daude. Finean, errenta, zerbitzu eta neurri juridiko multzo bat izango da, langileklaseko zenbait geruzaren kontsumorako sarbidea bermatzeko, eta, batez ere, gizarteko haserrea apaltzeko



Azaldu dudan prozesu historikoaren bidez, biztanleriaren %70a baino gehiagok jabetza bat eskuratu duenez, Estatu burgesak langile-klasearen zati bat politikoki berriz bereganatzea lortu du. Mendebaldeko beste herrialde batzuetan, batez ere soldaten igoeratik abiatuta egin zen prozesu hori, baina Espainian etxebizitzaren jabetza sozializatuz lortu zen

de, Eusko Jaurlaritzak Gaztelagun dirulaguntzen al-daketa onartu berri du. Alokairua ordaintzeko, 275 eurora arteko laguntzak emango zaizkie gazteei –lehen 250 eurokoak ziren–, eta 35 urte bete arte kobratu ahal izango dira –lehen 33 urte bete arte kobratu zitezkeen–. Funtsezko aldaketak dira; izan ere, gazte kopuru handi batentzat, laguntza hori da emantzipatzeko bide bakarra.

Zer esaten digu horrek guztiak etxebizitza-sistema berriari buruz? Begi bistakoa dena alde batera utzita –izan ere, garestitze-testuinguru batean di-



ru-laguntzen zenbatekoa handitu egiten da, baina beti ere inflazio errearen azpitik–, sistema horren oinarri nagusia maizter batzuen kontsumoa diruz laguntzea da. Beste era batera esanda, zorpetze publikoaren bidez ordaintzea etxebizitza-gastuen zati bat, jabeek beren ordainsaria jasotzeari utz ez diezaioten. Zorpetze hori, azken batean, Europatik ezarriko diren murrizketa-politikekiko erabateko subordinazioa da. Beraz, etxebizitzarako diru-laguntzak ez dira laguntza eskaintzen digun esku bat, lepoan jarritako esku bat baizik, epe laburrean jabeak salbatu nahi dituen, eta, epe ertainera, Kapitalaren asmo guztiak aplikatu nahi dituen.

Miseria-sistema berri horretarako, etxegabeteak, etxerik gabeko pertsonak edo emantzipatu ezin direnak, ororen gaintetik, arazo politiko bat dira. Neurri horien benetako irismena oso txikia da –ikusirik ez dago zenbat etxegabete egiten diren luzatze prozesu horietan, edo nola hainbat eta hainbat etxebizitzetarako diru-laguntzen eskaerak ez duten inolako arretarik jasotzen–, haien funtzio nagusia ideologikoa baita. Izan ere, etxebizitzara bideratutako errenta eta zerbitzu horien hedapena zenbait auzik mugatzen dute: mobilizatutako baliabide kopuru txikia, eskuratze-prozesua ezinezko bihurtzen duen burokrazia jasanezina eta laguntza horietako bakoitzarekin batera doazen kontrol-mekanismo gogorrak dira, besteak beste, horietako batzuk. Akats horiek ez dira ezustekoak, nahita egingakoak baizik. Existentzia baldintzak –miserablea, bai, baina, existentzia– birtualki bermatzen dituen bakarra Estatu burgesa izaten jarraitzen duen bitartean, proletario guztia saiatuko da bere bidea egiten norabide horretan.

Krisiaren kudeaketa burgesarren ondorioen aurrean, Estatua bere babes sozialerako eredua prestatzen ari da, funtsean arazo sozial potentzialaren aurrean burgesia babesteko eredua dena

Azaldu dudan prozesu historikoaren bidez, biztanleriaren % 70a baino gehiagok jabetza bat eskuratu duenez, Estatu burgesak langile-klasearen zati bat politikoki berriz bereganatzea lortu du. Mendebaldeko beste herrialde batzuetan, batez ere soldaten igoeratik abiatuta egin zen prozesu hori, baina Espainian etxebizitzaren jabetza sozializatuz lortu zen. Sozializazio horrek, azaldu nahi izan duan bezala, bi alderdi ilun izan zituen: alde batetik, proletalgora beti baztertua egon zen, eta, beste alde batetik, kontsumorako sarbidea zorpetze pribatua handituz lortu zen. Azken batean, 1973ko krisiaz geroztik ate-joka zegoen proletarizazio-prozesua estali zen. Orain, badirudi Estatuak onartzen duela deskalabrua saihetsezina dela, eta etxebizitza baten jabetza bezalako gizarteratze-mekanismoek garrantzia galtzen dute. Gauzak horrela, azken hamar urteetan, jabeen ehunekoa % 5 jaitsi da. Krisiaren kudeaketa burgesarren ondorioen aurrean, Estatua bere babes sozialerako eredua prestatzen ari da, funtsean arazo sozial potentzialaren aurrean burgesia babesteko eredua dena. ●

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Astarita, Rolando (2010). *La cuestión de la vivienda y el marxismo*. Hemen kontsultatua: rolandoastarita.blog

Del Rosal, Mario (2022). *¿Para qué sirve la inflación?* Kazetaritza alternatiboa. Hemen kontsultatua: nuevarevolucion.es

Engels, Friedrich (2006). *Contribución al problema de la vivienda*. Friedrich Engels Ikasketa Sozialisten Fundazioa: Madril.

Harvey, David (2007). *Espacios del capital: hacia una geografía crítica*. Akal: Madril.

López, Isidro y Rodríguez, Emmanuel (2010). *Fin de ciclo: Financiarización, territorio y sociedad de propietarios en la onda larga del capitalismo hispano (1959-2010)*. Amets-trafikatzailleak: Madril.

Marín, José María (2006). *La fase dura de la reconversión industrial: 1983-1986*. Historia del presente, 8, 61-101.

Marx, Karl (2017). *Kapitala. Bigarren liburua*. XXI. mendea: Madril.

Niño-Becerra, Santiago (2020). *Capitalismo 1679-2065*. Ariel: Bartzelona.

Rodríguez, Emmanuel (2022). *El efecto clase media*. Amets-trafikatzailleak: Madril.

Zola, Émile (2017). *Germinal*. Akal: Madril.

DATUEN EUSKARRIAK

1 Estatistikako Institutu Nazionala (INE)

2 Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT)

3 Idealista

4 Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

Argitalpena
2022KO EKAINA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR
FACEBOOK
@ARTEKAGEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia